

DATORRENA

Europako liderrek kalezulo batean sartu gaituzte **ISIDRO ESNAOLA > 3**

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Bai, eredu kontua da **PELLO OTXANDIANO > 11**

2022ko irailaren 17a | XVI. urtea • 791. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik

www.gaur8.info



**SEGITUKO AL DU ITSASOAK
GETARIA PIZTEN?**



4



17



**Esklabo modernoak: milioika
lagun lanera behartuta** 04

**Gharib familia palestinarraren
etxea, okupazioak setiatua** 06

**Japonia, «sento» bainu publikoen
ohitura berrasmatzen** 07


**«Itsasoak pizten gaitu», Getaria eta
itsasoaren arteko harremana
aztertzen duen dokumentala** 12

**Bideko eskola, munduari bira
ematean ikasitakoak** 17

**Aitor Iguñitz bidaiaria: «Nora,
norekin eta nola jakin gabe
bidaiatzea izan da onena»** 22

**Eskolaz kanpoko jarduerak,
neurria hartzean dago gakoa** 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



22



28

SINADURAK:

03 **Isidro Esnaola:** Europako
liderrek kalezulo batean sartu
gaituzte

10 **Ula Iruretagoiena Busturia:**
Klixek

11 **Pello Otxandiano:** Bai, eredu
kontua da

16 **Exprai**

20 **Beñat Gaztelumendi:** Ardatza

21 **Iker Barandiaran:** Hemen ez da
ezer gertatzen

27 **Oihane Larretxea de la Granja:**
Egongo gara

27 **Koldo Sagasti:** Kontatzen ez
dena ez da

30 **Garazi Goia:** Indiferentziatik



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Europako liderrek kalezulo batean sartu gaituzte

Uste dut Daniela Gabor Ekonomia eta Makrofinantzetako irakasleak bete-betean esmatu zuela Europako Banku Zentralaren egungo egoera deskribatzeko egin zuen alderaketarekin. Alemanezko *zugzwang* hitza hautatu zuen, xakean erabiltzen dena: mugitzea tokatzen zaizu, baina posizio horretan jokaldi posible guztiek egoera okertu baino ez dute egiten; nahiago zenuke ez mugitzea, baina behartuta zaude eta horrek galtzea esan nahi du. Horrelako irteerarik gabeko kalezulo batera aurkariaren trebetasunaren bidez irits daiteke, baina eskuarki norberak bere gaitasunik ezagatik nahasirik amaitzen du. Horrelako zerbait gertatu zaio EBZri ez ezik Europar Batasun osoari ere, batez ere egungo buruzagien gaitasunik ezagatik.

EBZren interes tasen igoera mugimendu horietako bat izan da: zerbait egin behar eta horra. Baina halako mugimendu batek ez du zentzurik, inflazioa batez ere energia eta lehengaien inportazioengatik igotzen denean, Errusiaren zigorren politikarekin larriagotuta (kalezuloan sartzeko beste erabaki bat). Enpresak eta familiak kolpatu besterik ez du egiten, prezioen gorakada

hori jasateaz gain, orain interes gehiago ere ordaindu behar baitituzte beren kredituengatik. Perspektibak baikorrak balira, interes altuagoek ez lukete kreditua zertan geldiarazi (etekina gastua baino handiagoa dela uste badeute, berdin zorpetuko dira), baina horizontea grisa bainoago beltza denean, ea nor ausartzen den... Ondorio asko atera daitezke EBZk tasak igotzeko hartutako erabakitik, baina inork ez dio arreta gehiegi jartzen printzipalari: Europako Banku Zentralaren agindua prezioen egonkortasunari eustea da; ez enplegua ez beste helbururik ez dago gainetik, eta inflazioa benetan iritsi denean, ezgaia da.

kin prezioak kontrolatzea pentsatu bazen, euroaren diseinua negargarria dela. Beste mugimendu bat, kalezuloan giltzapetu gaituena, inork nola irten ez dakiela.

Energiaren prezioekin antzeko zerbait gertatzen da. Orain errusiar gasaren prezioan muga bat jartzea bururatu zaie, nahiz eta beste batzuek orokorrean gasarena izatea proposatu. Hori da, hain zuzen ere, Europar Batasuna eraginkorra ez zela erabaki aurretik genuena; izan ere, Espainiako Estatuan Gobernuak finkatzen du oraindik butano bonbonaren prezioa. Baina pentsatu zuten hobe zela energia hornidura pribatizatzea, eta orain, Iberiar penintsulako salbuespenarekin gertatu zen bezala, prezioa mugatuz gero, enpresa pribatuei denon artean ordaintzen diegu konpentsazioa, Ramon Contrerasek ondo azaldu zuen bezala (<https://labur.eus/g6NEz>). Ez

Europako Banku Zentralaren agindua prezioen egonkortasunari eustea da; ez enplegua ez beste helbururik ez dago gainetik, eta inflazioa benetan iritsi denean, ezgaia da

hori bakarrik, pribatizatzeaz gain, epe luzerako kontratu guztiak desegin zituzten hornitzaileekin, jakina denez, merkatua eraginkorragoa delako. Merkatua besterik ez, espekulatzailen pozerako. Kalezuloan sartzeaz gain, irteera estaltzea erabaki zuten: Europak defizit energetiko monumentalak du, baina agintari europarrek energia errusiarraren erosketa zigortzea erabaki zuten. Merkatuak hornituko du, bai, baina zer preziotan!

Moneta politika bera inflazioaren aurrean indargabea den bezala, merkatua ez da tresna fidagarria oinarritzko baliabideez ari garenean. Kontua ez da energiaren prezioei mugak jartzea bakarrik, gizartearen oinarritzko hornidurak esku pribatuetan uzteko Europako esperimentuari amaiera ematea baizik. •

ESKLABO MODERNOAK

Mundu osoan 50 milioi pertsona lan egitera edo ezkontzera behartuta daude

📁 **ESPLOTAZIOA / GAUR8**

Esklabotza moderno mundu osoan areagotu da azken urteotan, eta pandemiak bereziki suspertu du. Urtero ia 50 milioi pertsona lan egitera edo ezkontzera behartuta daude, Nazio Batuen Erakundearen (NBE) arabera.

NBEk gaitz hau desagerrarazi nahi du 2030. urtea baino lehen, baina munduak kontrako joera erakusten du. Iaz 2016an baino 10 milioi pertsona gehiago zegoen esklabotza modernoaren egoerapean, Lanaren Nazioarteko Erakundearen (OIT) eta Nazioarteko Migrazio Erakundearen (IOM) arabera.

Nazio Batuen bi erakunde horiek Walk Free Foundation GKEarekin batera ikertu dute esklabotzaren egoera.

2016arekin alderatuz, esklaboen kopurua 10 milioi inguru hazi da mundu osoan. 28 milioi pertsona lan esklabo gisa bizi dira eta 22 milioi inguruk behartutako ezkontzak izaten dituzte. Mundu osoan hedatuta dago. Baita diru sarrera handiak edo ertainak dituzten herrialdeetan ere. Pandemiak, gainera, areagotu egin ditu mendekotasun egoerak.

50 milioi esklaboetatik, ia 27,6 milioi behartutako lanak egiten zituzten pertsonak ziren, eta beste 22 milioi haien borondatearen aurka ezkonarazitako pertsonak.

Behartutako ezkontzak esklabotza modernoaren bigarren kategoriarik handienekotzat jotzen dira. Esklabotzaren definizioaren arabera, pertso-

na batek ezin die uko egin esplotazio modu hauei, mehatxuen, indarkeriaren, engai- nuaren edo botere abusua- ren ondorioz.

Emakumeak eta neskatoak ezkontzera behartutako- en bi heren dira eta txostenaren arabera, sexu esplotazio komertzialeko egoeran dauden bostetik ia lau. Guztira, esklabo

modernoaren %54 dira emakumeak.

Hala ere, OITk uste du fenomeno horren benetako eragina –bereziki 16 urtetik behera- ko neskatoak tartean direnean– estimazioek jaso dezaketena baino askoz handiago dela.

Pandemiak oro har, lan baldintzak okertzea eta langileak

zorpetzea eragin du. Aldi berean, esklabotza modernoaren bideak indartu egin ditu, forma guztietan.

Izan ere, ohiko kreditu bat lortu ezinik zorrak ordaintzeko halako esklabotzapean jardutera behartutako kopuruak gora egin zuen.

ARRISKUAK GORA

Azken urteotan, krisien ugalketak –pandemiarekin batera, hainbat gatazka armatu edo klima larrialdiarekin lotutako arazoak– hezkuntzan eta langintzan inoiz ez bezalako aldaketak eragin ditu, muturreko pobrezia areagotu egin da eta behartutako migrazio arrisku- tsuak eta genero indarkeriako kasuak ugartu egin dira. Horrek guztiak esklabotza modernoaren arriskua handitu du nabarmenki.

Hainbeste, ezen, mundu osoan, 150 pertsonatik bat esklabo modernotzat jo daitekeen.

Datu hauek estatuetako etxeetan egindako inkestetan oinarritzen dira. Esklabotza egoerak ez direla behin-behinekoak ere adierazten dute ikerketa horiek. Alderantziz, urteetan luzatzen dira.

Guy Ryder OITren zuzendari nagusiaren arabera, «harrigarria da esklabotza modernoaren egoerak hobera ez egitea», eta dei egiten die gobernu- ei, baina baita sindikatu- ei, enplegatzaileen erakunde- ei, gizarte zibilari eta jende arruntari «giza eskubideen oinarritzko urraketa horren» aurka borroka- tzeko.

Eta asmo horrekin egindako txostenak hainbat ekintza proposatu du. Horien artean, lan arloko legeak eta ikuskaritza lanak hobetzea eta betearaztea; enpresek langileen eskubideak erabat errespetatzea, sindikatzea, besteak beste;



estatuak ezarritako nahitaezko lanari amaiera ematea; gizarte babesa handitzea eta lege babesak indartzea eta baita ezkontzeko legezko adina 18 urtera igotzea ere, salbuespenik gabe.

Emakumeek eta hurrek ahulenak izaten jarraitzen dute, neurritz kanpoko modu batean. Hala, behartutako zortzi langiletik ia bat haurra da, eta erdiak baino gehiago sexu esplotazio komertzialaren biktimak dira.

BEHARTUTAKO EZKONTZAK

Behartutako ezkontzak 6,6 milioi gehiago izan dira azken urteotan, 2016ko mundu mailako zenbatespenetik.

Zenbaki absolutuetan, Asian eta Ozeano Barean emakume gehiago daude ezkontza behartuetan, baina eskualde bakoitzeko biztanleriaren tamaina kontuan hartuz gero, herrialde arabiarretan gehiago daude. Hala eta guztiz ere, herrialde aberatsak ez dira gaitz horretaz libratzen, kasuen %26 erregistratzen baitira bertan.

Txostenak ez du zehazten migranteen kopurua zenbatekoa den lan egitera behartutako langileen artean, baina langile etorkinek migratzaileak ez diren langile helduek baino hiru aldiz aukera gehiago dituzte lan behartua egiteko. Batez ere legez kanpoko migranteek, inolako babesik gabe daude eta.

Antonio Vitorino IOMren zuzendariak migrazio guztiak «seguruak, arautuak eta erregularrak» izatea eskatzen du, migranteen egoera babesteko. «Migratzaileek nahitaezko lanerako eta pertsonen salerosketarako duten urrakortasuna murriztea, batez ere, migratzaile guztien giza eskubideak



Mundu osoan, 150 pertsonatik bat esklabo modernoak da. Aurreko orrialdean Hadijatou Mani, Nigerren emakumeen esklabotzaren aurkako borrokalaria. Bera ere esklabo izan zen 12 urterekin saldu zutenetik. Borroka judizial luzea egin behar izan zuen askatasuna lortzeko. Nigerren «bosgarren emaztearen» praktikaren eta esklabotzaren aurka borrokan jarraitzen du. Anti Slavery International | EUROPA PRESS - Mohamed ABED | AFP

eta oinarritzko askatasunak errespetatu, babestu eta betetzen dituzten politika nazionalen eta lege esparruen mende dago», dio.

Esklabotza modernoak munduko ia herrialde guztietan dago. Behartutako lanaren kasuen erdiak baino gehiago (%52) eta behartutako ezkontzen laurden bat diru sarrera ertainak edo altuak dituzten herrialdeetan daude.

Txostenak erakusten du, halaber, bortxazko lanean ari diren pertsonen kopurua 2,7 milioi handitu zela 2016 eta 2021 artean, ekonomia pribatuan, bai sexu esplotazio komertzialean, bai beste sektore batzuetan, egindako lan behartuaren ondorioz soilik.

Bortxazko lanaren kasuen erdiak baino gehiago (%52) eta behartutako ezkontzen laurden bat diru sarrera ertainak edo handiak dituzten herrialdeetan daude

NBEk hainbat neurri eskatu du: lan arloko legeak eta ikuskaritza lanak hobetzea eta betearaztea eta ezkontzeko legezko adina 18 urtera igotzea, besteak beste

Sektoreka, behartutako lana ia guztietan dago, eta heldu gehienak zerbitzuetan, manufaktura industrian, eraikuntzan, nekazaritzan eta etxeko lanetan esplotatzen dituzte. Neurri txikiagoan, biktimek mineralak bilatzen eta harrobietan edo arrantza ontzietan lan egin behar dute.

Talde honetan sartzen dira, halaber, kalean eskean ibiltzera behartuak direnak eta legez kanpoko jarduerak egitera behartuak direnak.

Hala ere, estatu batzuek behartutako lan moduak ere inposatzen dituzte (guztizkoaren %14 edo 3,9 milioi pertsona), gehienak gizonei (%78) eta %8 haurrei.

Kategoria ohikoenak dira es-

petxeetako lan behartua, gehiegizko errekrutatze militarra edo herrialdearen edo erki-dego baten garapen ekonomikoa bultzatzeko beharraren justifikazioarekin lan egiteko betebeharra.

Behartutako langileen %12 haurrak dira (3,3 milioi), baina ikertzaileak beldur dira datuak biltzeko dagoen zailtasunagatik zifra hori ez ote den icebergaren punta izango.

Asian eta Ozeano Barean daude munduko langile behartuen erdiak baino gehiago. Txostenak bereziki azpimarratzen du NBEko zenbait erakundek kezka agertu dutela Txinan, baita Xinjiangen (Ekialdeko Turkestan) ere, bortxazko lanagatik.

Ildo horretan, txostenak azpimarratzen du Txinak abuztuaren 12an gordailutu zituela behartutako lanari buruzko OITren funtsezko bi hitzarmenak berresteko tresnak, eta horrek «bultzada berri bat ematen diola gobernuarekiko eta gizarte solaskideekiko lankidetzari, horiek monitorizatze eta bortxazko lanari aurre egiteko».

ETXEA, OKUPAZIOAK SETIATUA

Familia palestinar bat kolonia israeldar batek inguratuta bizi da, eta etxeko sarrera soldaduen kontrolpean dute

Zortzi metroko altuerako metalezko hesiak inguratzen du Gharib familiaren etxea eta sartzeko indar israeldarrek kontrolatutako atea gurutzatu behar dute.

Israelek 1967an lurralde palestinar hau okupatu zuenetik kolonia juduak ugaltu egin dira haien etxearen inguruan eta Beit Ijza herri palestinarretik isolatutako uharte bat bihurtu dute. «Ez dakit noiz bukatuko den hau. Inork ez daki zer-nolako sufrimendua jasaten ari diren nire seme-alabak», dio Saadat Gharibek. «Urteotan oso bizitza gogorra izan dugu», gaineratu du Ramallahen Agintaritza Palestinarreko lan egiten duen 40 urteko gizonak.

Lehen laborantzako lursailak inguratzen zuten etxea, baina orain sarrera bakarra soldadu israeldarrek kontrolatzen duten ate hori bat da. Gharibek 10 hektareako lursaila zuen, eta 1978an israeldarrek euren karabanak kokatu zituzten handik hurbil. Dunam bat (10 hektarea) erostea proposatu zioten, baina uko egin zien.

Urteak igaro ahala, Gobernu israeldarrak lurzatiak konfiskatu ditu kolonoak ezartzeko eta azkenean Givon Hahadasha legez kanpoko kolonia eraiki zuten. Jatorrizko lursailetik gaur egun 6 hektarea baino ez du Gharibek.

«Orain dunam erdia baino ez dugu, eta alde guztietatik inguratuta gaude», salatu du.

Etiket atertzeko, alanbre hesiz mugatutako korridore bat zeharkatu eta soldaduek

 PALESTINA / GAUR8

Gharib familia amesgaizto batean bizi da duela hainbat urtetatik hona Zisjordaniako Beit Ijza herrian. Gobernu israeldarraren babesarekin eta soldaduen eta epaileen laguntzarekin, kolonoek bere lurak okupatu eta etxea erabat inguratu dute. Alanbre hesi baten bestaldean, atea soldaduen kontrolpean dago.

urrutitik kontrolatutako atea igaro behar du. Familiak auzitara jo du hainbat aldiz, baina gutxitan lortu du jabetza babestea. 2012an epaitegi israeldarrek bere lurren %3 aitortu zioten. Baina erabakia oraindik ez da ezarri eta kolonoek

Gharibtarren etxea goitik ikusita: kolonia juduak erabat inguratzen du eta alanbre hesiz mugatutako korridorearen amaieran dago irteera.
Menahem KAHANA

aparkaleku moduan erabiltzen dute lurzati hori.

2008an, Auzitegi Gorenak baliogabetu egin zituen israeldarren segurtasun neurri batzuk: kamera aurrean nortasun agiria aurkeztea eskatzen zieten, sarrerako ate astun hori ordutegi mugatuekin igaro ahal izateko.

Orain, teorian, familia nahi duenean atera daiteke, segurtasun indarrek arriskuren bat dagoela uste dutenean izan ezik. Halakoetan, atea nahieran itxi dezakete.

Urte horietan, gainera, soldaduek etxea arakatu eta atxi-

loketak egin izan dituzte. Eta edozein gatazkatan beti kolonoen alde egin dute.

Saadatek olana urdin bat jarri zuen burdin hesiaren behaldez, bere seme-alabek gogaituak izan gabe edo kolonoen beldur izan gabe jolastu ahal izateko.

«Guri ere ez zaigu gustatzen hesi hori», adierazi du Avi Zipory kolonoak. Haren iritziz, inguru hori guztia lurralde judua da eta ideia horrek auzitegi israeldarren oniritzia du, eta mila biztanleko kolonia babesten dute. Palestinarrek beste aukera bat –alde egitea edo dirua– ez onartzea gaitzesten du Ziporyk.

«Ez dakit noiz bukatuko den hau», dio hasperen eginez Saadat Gharibek. Seme-alabengatik beldur da, batez ere soldadu israeldarrak inguruan daudenean eta gatazkak daudenean. «Bart alabak ezin izan zuen lo egin. Gau osoan soldaduak atean izan genituen».

Gainera, orain ezin du bere olibondoetara iritsi, koloniaren bestaldean daudelako.

Olibondoak lantzeko baime-na Israelgo Armadaren borondatearen mende dago, eta beti arbitrarioa izaten da hori. Bueltak eman behar ditu Bayt Duqu herria zeharkatzeko eta han beste ordubete bat edo bi itxaron, soldaduek beste ate bat ireki arte.

Baina amesgaizto horrek ez diola bere lurrari uko eginaraziko azpimarratu du: «Hau da gure lurraldea. Nire aitaren-gandik jaso nuena eta berak nire aitonarengandik. Mundu osoko diruaren truke ere ez nuke salduko».



«SENTO» BIZIGARRIA

Bainu publiko horien plazer zaharra berrasmatzen ari dira Japonian

KULTURA / AFP

Japonian, «sento» edo bainu publikoak erabiltzeko ohitura gaur arte heldu da, baina pasa den mendearekin alderatuta askoz gutxiago erabiltzen dira egun. 1960ko hamarkadan 18.000 ziren, eta orain 1.800 inguru. Etxeko bainugelaren erosotasunaren iritsierarekin desagertzen joan dira, baina bainu erlaxagarri horien kultura ez da erabat ahaztu.

Agure talde bat, bakoitza bere toalla, xaboi eta xanpuarekin, Inariyun sartzen da, Japonian geratzen den bainu publiko bakanetako batean. Bere bainuontzi arruntekin, Fuji mendiko horma-irudi distiratsuekin eta egurrezko ate irristakorrekin, Tokioko Inari-

yu *sento* klasiko baten, alegia, japoniar bainu publiko baten, adibide argia da.

Lehen hiriguneetan nonahi zeuden halako bainuak, baina desagertzen joan ziren etxebizitzetan osasun erosotasuna hobetu ahala.

Herrialde osoan, bainu publikoen kopurua 1.800 ingurura jaitsi da, 1960ko hamarkadaren amaieran baino hamar

aldiz gutxiago, orduan 18.000 bainu publiko baitzeuden.

Lokalen jabeak inoiz baino tentatuago daude beren lurrak saltzeko, makinen narriadurak, gasaren prezio altuak eta gazteek negozioa beren gain hartzeko duten interesik ezak bultzatuta.

Batzuk, Inariyu kasu, berritu egin dira, eta beste batzuk, berriez, modako lokal gisa berras-

Uztailean hartutako irudian, Sam Holden sentoak babestearen aldeko aktibista eta Sento&Neighborhood erakundeko zuzendarikidea, Ruyzo Tsutsui eta Shingo Umehararekin Inariyu sentoan. Philip FONG | AFP

matu dira edo datuen analisisa erabiltzen dute negozioa suspertzeko.

Yasuko Okuno auzoko komunak salbatzeko borrokatzen den lagun bat da. Berandu arte lan egin ondoren sentoa erlaxatzeko modu ezin hobea dela defendatzen du.

GAINETIK PISU BAT KENDU

«Eguna joan eta eguna etorri, burua nekatuta neukan. Etxera joaten nintzenean ere, ezin nuen lana ahaztu», dio 36 urteko emakumeak. «Orduan sento batera joan nintzen aspaldi-aspaldiko partez, eta gaineretik pisu bat kendu zidatela sentitu nuen. Bainu handi bat zegoen eta jendeak maitekiro agurtu ninduen», adierazi dio AFPri. Denborarekin, sentoa «bigarren etxe baten antza» hartzen hasi zela gaineratu du.

Japoniak ez zuen inoiz itxiera zorrotzik ezarri covid-19aren pandemiagatik, eta gimnasioak eta sentoak bezalako tokiak irekita egon ziren, baita enpresek etxetik lan egitea erabaki zutenean eta jate-txееk irekitzeko ordutegiak mugatu zituztenean ere.

Musukoak trenetan eta beste leku publiko batzuetan erabili ohi dira, baina sentoetan ez dira beharrezkoak. Halere, urruntze soziala eta bainua isilik hartzea gomendatzen dute.

Adineko herritar askorentzat, pandemian bertan beharra utzi nahi izan ez zuten «eguneroko errutina» da. Batzuek nahiago dute beste norbait ondoan dutela bainatu, badaezpada ere eroriz gero, Yasukok gaineratu duenez.

Bainu publikoen itxierak komunitatearen loturak higatu ditzakeela uste du Sam Holdek. Sento & Neighborhood bere erakundeak Monumen-



tuen Mundu Funtsaren 200.000 dolarreko dohaintza erabili zuen Inariyu eta ondo-ko eraikin tradizional bat ber-ritzeko. 1930. urtean Tokio iparraldean, etxe arteko bide estuetan, eraikitako bainu pu-blikoaren giro atseginari eutsi nahi izan zion taldeak.

ADIN GUZTIETAKO BEZEROAK

Inariyuk adin guztietako beze-roak izaten ditu, adineko asko barne; «horietako batzuk ba-karrik bizi dira eta bakartuta egoteko joera dute», adierazi du Holdenek, duela ia hamar-kada batetik Tokion bizi den 32 urteko estatubatuarrak. «Nire lankideek eta nik pre-mia handia dugu egitura his-toriko horietako batzuk babes-teko, apartamentu eraikin

bihurtu baino lehen», azaldu duenez. Erabiltzaileek 500 yen (3,7 dolar) ordaintzen dituzte bai-nura sartzeko, hau da, Tokioko gobernuak ezarritako tarifa. Zapatak kutxatila txiki bate-an utzi, aldagela batean eran-tzi eta dutxatu egiten dira, tenperatura desberdinetako bainuontzietan erlaxatu au-rretik. *Onsen* izenez ezagutzen diren bainu termaletan ez be-zala, sentoetan ura gasarekin berotzen da. Emaztearekin batera Inariyu sentoa kudeatzen duen Shunji Tsuchimotok France Press agentziari azaldu dionez, bai-nu publikoak iaz baino %50 gehiago ordaintzen du ener-giagatik. Eraikin berritueta-ko ekitaldietara bezero gazteak

Azpiko irudian, bainu kolektiboko une ezberdinak Tokioko Inariyu izeneko sentoan. Ondoko argazkian, bezero batzuk bainu bero erlaxagarria hartzen Tokion, Koganeyu sentoan. Philip FONG | AFP

erakartzea espero du alde hori estaltzeko. **GAZTEAK ERAKARRI** Tokioko ekialdean dago Koga-neyo bainu publikoa. 2020. ur-tean berriro ireki zuen eraba-teko berritze lanak egin ondoren; gazteak erakartzeko aukera ematen dio horrek. Duela gutxi, larunbat batean, garagardo artisaua edaten eta binilozko diskoak entzuten zi-tuzten gaztez beteta zegoen. Kohei Ueda 25 urteko langile teknologikoak ordubeteko bi-daia egin du lagun batekin Ko-ganeyora joateko. «Sentoak ai-tona-amonentzat direla iruditzen zait –onartu du–, baina sento hau modernoagoa da. Ez da lehengoak bezalakoa da. Ez da lehengoak bezalakoa (...) Eroso nago hemen», esan

duenez. Kom-pal lokalean, 36 urte dituen Fumikata Kadoya jabe-ak bezero kopurua handitzea lortu zuen, datuen analisia egin ondoren. Datuek enpresa erabakiak hartzeko aukera eman zioten, eta horien arte-an, emakumeen etorrera sus-tatzeko emakumeak kontrata-tzea, eta igande goizetan irekitzea izan ziren aholkatu-tako gakoetako batzuk. «Sentoak beti izan dira Japo-niako kulturaren parte», adie-razi dio Kadoyak AFPri eta orain, «bainatzen zaren bitar-tean dena kutxatila batean uz-tea ‘desintoxikazio digital’ mo-duko bat izan daiteke». «Uste dut hori behar dutela gazteek gaur egun», azpima-rratu du.



Sentoen instalazioak berritzen ari dira hainbat tokitan, gazteak erakartzeko. Horietako asko biltzeko modako gune gisa aurkezten dira, eta batzuetan datuen analisia erabili dute negozioa suspertzeko.

Philip FONG | AFP



JAPONIARREREK GURTU EGITEN DUTE BAINUA HARTZEAREN UNE ERLAXAGARRI HORI

Bainua hartzea baino zerbait gehiagoren bila joan daiteke sento baten ateak gurutzatzen dituen. Komunitatearekin kontaktuan egotea, deskonektatzeko esperientzia bat izatea... asmo desberdinak egon daitezke Japoniako tradizioan oso errotuta dagoen ohitura horren atzean. Kultura horren hainbat zertzelada aurkitu dugu Tokioko turismoaren webgune ofizialean. Lehen-lehenik, esperientziaren ahalmen erlaxagarria nabarmentzen dute.

Heian garaikoak (794-1185) dira, baina antza denez, oso ospetsu egin omen ziren beranduago, batez ere Bigarren Mundu Gerraren ostean. Booma izan zuen etxe askotan bainuontzirik ez zegoen sasoi horretan, eta izugarri ugaritu ziren. Hain zuzen ere, 1968. urtean Japonia osoan 18.000 sento baino gehiago zegoen, webguneak zehazten duenez.

Gaurko sentoek, halere, zerikusi gutxi dute antzinakoekin. Ambientazioaz gain, bainu mota ezberdinak eskaintzen dituzte, korrante elektrikodun bainuak, iturburuko ur beltza eta belar bainuak kasu. Sentora joan aurretik jakin beharreko gomendioak eskaintzen dituzte. Eskuoihala ematen badute ere, txiki bat eramatea aholkatzen dute; sento batzuetan xaboia eta xanpua eskaintzen ez dituztela kontuan hartzea, eta barruko arropa garbia eramatea. Aholkua ez da horretan geratzen, bainu mota ezberdinak hartzeko gonbita ere egiten dute.

Kultura japoniarri buruzko zenbait webgunetan bainua hartzeak japoniar bizimoduan duen garrantzia aipatzen dute. «Bainu bat hartzeak oso bestelako zentzua du guretzat Mendebaldekoaren alderatuta, non normalean garbitzea izaten den bere helburu bakarra. Japoniarrok nolabaiteko gurtza egiten diogu bainuaren kulturari, bai etxean, bai bainu publikoetan, bai bainuetxeetan; bainatzea maite dugu. Eguneko une hau, agian, egun osoan har dezakegun erlaxatzeko une bakarra da, non gorputza eta burua garbitzen ditugun, gure arazoez ahazten garen, eta atsedean hartzen dugun zorion unea da», dio «Japoniarrak hodeian» webguneak.


Hiru bainu mota ezberdintzen dituzte: *ofuroa*, etxeko bainua da, baina etxe japoniarretan WCa eta bainua hartzeko lekua (*ofuro*) bi gela ezberdinetan daude. «Hori horrela da Japonian bainuontzitik kanpo garbitzen garelako eta bertan sartu aurretik, bainuontziaren funtzio bakarra erlaxatzea delako. Hau da, dutxa aldera joan eta garbitu egiten zara taburetean eserita. Behin gorputzeko xaboi eta xanpu guztia ondo garbitu duzunean (dutxarekin edo baldearekin ura botata), prest zaude bainuontzian sartu eta bainu bero bat hartzeko». Nabarmentzen dutenez, bainuan sartu aurretik ezinbestekoa da ondo garbitzea, ura garbi izateko, etxeko kide guztiak ur berarekin bainatzen direlako. Uraren beroa mantentzeko, etxe japoniarretan bainuontziek tapa bat izaten dute. Beste bi bainu motak *sentoa* eta *onsena* dira, hau da, ur termal naturalak, eta halako bainuetxeak 2.000 baino gehiago direla zehazten dute.





Ula Iruretagoiena Busturia - @ulissima5
Arkitektoa

Klixekak



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA

Herri ertainek eta hiritik kanpoko herrigune eta bizitokien ingurukoek interesa hartu dute unibertsitatean, hirigintzan eta praktika artistikoetan, eta ikusgarritasuna irabazi dute. Joera duela zenbait urtetatik datorren arren, askok diote azken urteetako gertaerek eta etorkizuna markatzen duten naturaren seinaleek indartu egin dutela. Naturatik gertu bizitzea salbazioa dela dioten artean eta etorkizunean biztanleria gehiena hirietan biziko dela dioten artean –eta, beraz, hiriaren ikerketa etorkizuna dela baieztatzen dutenak– dabil egun pentsamendua. Planteamendu horietan, landatarren eta hiritarren arteko desberdintasuna lehia modura ikusten dela ematen du, desberdin izateak bien arteko harremana eta loturak aurkitzea zailduko balu bezala.

Banaketa honetan lehena eta bigarrena edo hoberena eta txarrena sailkatzeko behar bat nabari da, eta horren gainetik bataren eta bestearen kontrako eta aldeko aurreiritziak daude. Tentsio horiek guztiek bi eremuen gaineko azterketa eta bizikidetzaz zaildu egiten dute. Bi norabidetan ikusten den begirada estatiko, trinko eta zurrin horretan folklorizazioa eta esentzialismoa gailentzen dira –beste posizionamendu ideologiko batzuetarako ere erabilgarri izan daitekeena–, eta tentsio honek landa inguruaren eta hiriarren arteko aferan oso indartsu eragiten du; bata edo bestea gutxiesteko balio du, eta aurrera jotzeko traba (handi) bat da. Klixekak aurrera jotzeko muga mentalak dira.

Landa eremuan bizi denak dagoneko ez du baserritar itxurarik eta, izaera desberdinetako hiriak dau den bezalaxe, landa herri eta egoera

arras desberdinak daude, paisaia heterogeneo bat osatuz. Bertara bizitzera joan diren asko hirian jaiotakoak dira eta hiriarekin harremanean dira; landan jaiotakoek hirietan ikasten dute, edo landako ekoizleak hirietako kontsumitzaileekin lotura estuan dira, edo landan sortutako praktika sozial/politiko/artistikoak hirietako erakustokietan ageri dira.

Hiria berriz, jada ez da definitziora eta batik bat dinamikoa den ingurunea. Hiria ez da esperimentaziorako eta ikerketarako leku bakarra, irekia eta pertsona dibertsitate handiena bilduko duena. Arrazoi ekonomiko, kultural eta lan baldintzengatik, hirietan jendea harrapaturik dago eta biltzeko aukera gero

eta zailagoa da. Zera esan liteke, gaur egun akzio eta interes lekuak batean zein bestean gerta litezkeela.

Ezin da ukatu, ordea, landa eremuko biztanleria hirietakoa baino txikiagoa dela. Komunitate txikia izateak abantaila handia du aldaketak proposatu eta probatzeko. Gobernantza ereduak, etxebizitza ereduak, aktibitate berriak, kultur eta sormen akzioak, landatar eremuan prototipatu daitezkeenak, landako edo hiriko sustapen errotik etor litezke, kooperazioan eta bien onurarako.

Lurraldeak behar duena oro har zera da, landatarraren eta hiritarraren klixekak gainditzea eta iruditeria berriak sortzea bai landa eremuan bai hirietan, eta ahal bada, ekologia erradikaleko paradigmak txertatuz, hau da, ingurune natural eta soziala aintzat hartuz eta zainduz. •

{ asteari zeharka begira } **Pello Otxandiano**

Bai, eredu kontua da

Ekonomia eta energia krisiak eta beren ondorioek markatuko dute urte politiko hau hein handi batean. Aldagai asko daude xake taulan gauzak batera zein bestera mugitu ditzaketenak, baina, edozein kasutan, mundu guztia da kontziente energia krisiak zein krisi ekonomikoak badutela oinarri egiturazko bat: funtsean, planetaren muga biofisikoekin talka egiten ari garela eta baliabide fosil merke ugarien garaia bukatu dela.

Aste honetan hiru notizia aipagarri izan dira eztabaida energetikoa astindu dutenak. Lehena, Europak, Ursula Von der Leyen kontserbadorearekin eskutik, enpresa energetiko handien (elektrikak zein erregai fosilen produktoreak) irabaziak zergapetuko dituen tasa bat iragarri duela, ustez, 140.000 miloi bilduko lituzkeena. Atera kontuak non gelditzen den Josu Jon Imaz! Bigarrena, Gaztela eta Leongo Juntak Garoñako zentral nuklearra berriro irekitzeko ikerketa bat egin asmo du. Eta, azkenik, Statkraft enpresa norvegiarrak euskal lurretan bi parke eoliko eraikitze asmoa duela jakin da.

Azken horrek zurrumbilo mediatikoa sorrarazi du. Esan dezagun garbi: zurrumbiloa ez du notiziak sortu, baizik eta honi EAJk eman dion erabilerak. Noiz ikusi da

EBBk asteazken iluntze batean prentsa oharra ateratzea tankera honetako notizia baten kasuan? Berriz ere eztabaida garrantzizko bat lokaztu eta pobretzeko makineria mediatikoa aktibatu da. Zer mesede egiten dio inori Azpeitia, Zestoa, Errezil, Eskoriatza eta Aramaioko herritarrek proiektu hauen berri prentsaren bidez eta modu honetan jakiteak? Eta sortu den presio mediatikoak zertan laguntzen du gaia modu sosegatuan aztertze gaia? Ez al litzateke zuzenagoa, eraginkorragoa eta zentzuzkoagoa herritarrek beren udal agintarien eskutik jasotzea Norvegiako enpresarekin izandako hartu-emanen berri? Denok dakigu herri honek asko duela jokoan auzi energetikoan. Eta estatu seneko itun bat behar da, bai noski. Esango nuke hiru oinarriren gainean eraikia:

Baga: Energia itunak herri estrategia baten ingurukoa behar du. Euskal herritarren interes publikoa bermatzera zuzendutako estrategia nazional koherente bat behar da. Enpresa askok du interesa energia azpiegiturak eraikitze, negozioa baitago tartean. Baina proiektatzen den azpiegitura bakoitzak estrategia territorial koherente bati erantzun behar dio. Eta halako zerbaiten antzik izan dezakeenik ez da oraino ezagutu.

Trantsizio energetiko justu eta demokratiko baterako euskal estrategia batek bi hanka behar lituzke ondo jarriak: energia kontsumoaren kontrakzio handi baterako bide orri bat eta ekonomiaren deskarbonizazioarako beste bat. Biak eskutik ulertuz eta biak batera garatuz.

Biga: Eskema oligopolistatik kanpoko eredu aldea egin behar da. Zer esan nahi du horrek? Ezin daitekeela energiarekin espekulatu. Herritarrek eskubidea dutela energia prezio justuan eskuratzeko. Eta horretarako, ezinbestekoa dela kontrol publikoa. Energiaren ekoizpena eredu publiko-komunitarioan egin behar da, institutu-

Energia itunak herri estrategia baten ingurukoa behar du. Euskal herritarren interes publikoa bermatzera zuzendutako estrategia nazional koherente bat behar da.

zio publikoek, tokiko enpresek eta herritarrek ere (energia komunitate lokalen bidez) kogestio moduetan parte hartzeko bidea zabalduz. Areago, halakorik posible denez gero, ez litzateke energia berriztagarrien azpiegiturarik garatu beharko eskema oligopolistaren arabera.

Higa: Trantsizio energetikoa lehen mailako erronka demokratikoa denez gero, herritarrekin batera egin behar da. Ez du balioko gobernu batek proiektu bat interes publiko orokorrekoa izendatu eta herritarrak erabakien parte egin gabe gauzatzea. Gainera, Unai Pascualek GARAn berriki egindako elkarrizketan esan zuenez, klimari eta biodibertsitatearen zaintzari dagokienez, zenbat eta deliberazio prozesu herritar sakonago eta zabalagoak, orduan eta erabaki hobeak. •

«ITSASOAK PIZTEN GAITU»

Getariak itsasoarekin duen harremanaz hausnartzen duen dokumentala

📁 KULTURA / Asier Aiestaran

I railaren 2an aurkeztu zen “Itsasoak pizten gaitu” dokumentala Getariako elizan. Kostaldeko herria Elkanoren mundu biraren 500. urteurreneko ospakizunetan sartuta zegoen bete-betean eta herritarrek ez zuten galdu nahi izan Getariak itsasoarekin historikoki izan duen eta gaur egun duen harremanaz sakon hausnartzen duen ikus-entzunezkoa. Eliza lepoino bete zen eta amaieran jasotako txalo zaparradak argi erakusten du lanak ikusleen artean sortutako zirrara.

«Egia esan, ez dakit zenbat jende egongo zen, baina prestatzen hasi ginenean geure buroari galdetzen genion: ‘zenbat aulki jarriko ditugu? 200 bat?’ [Hasieran emanaldia Bista-Onan egitekoa zen, aire librean, baina azkenean elizara lekualdatu zuten euriaren mehatxuagatik]. Eta gero jendea elizan sartu eta sartu ikusten genuenean ez genekien zer egin, apur bat beldurtu ginen gu ere. Ez nuen horrenbestekorik espero. Agian kontestutak ere lagundu zuen: Elkanoen urteurrena, trainerua ere ederki dabil... Azkenaldian beti itsasora begira gaude eta horrek ere lagundu digu», onartu du Beñat Gereka zuzendariak Itsas-Etxe jatetxeko terrazan kafe bat hartzen dugun bitartean.

Kafea izotzarekin, arratsaldeko 15.00ak direlako eta 30 gradutik gora egiten dituelako Getariako portuan. “Kantauri” arrantza ontzia ere erdi lotan dagoela dirudi gure parean, ur gainean ia mugitu ere egin gabe. «Etxean jokatzek bere alde onak eta txarrak ditu; herri txikietako kontua, badakizu. Ez, egia esan, oraingoz iritsi zaidan dena ona da. Eta ba-

tzuetan txarrak entzutea ere ongi etortzen da bakoitza bere lekuan jartzeko. Oraingoz gerturatu zaizkidan guztiak gustatu zaiela esateko izan da, emozionatu egin direla esateko, eta horixe zen helburua. Hori entzunda lan horrek guztiak merezi zuen», dio Gerekak jaso dituen iritziez galdetuta.

SUSTRAIETARA BIDAIA BAT

Zarautzen bizi den getariarra da Beñat Gereka, inguruan

itsasoko lana betidanik ezagutu duena. «Ni Txoko erretegiko semea naiz. Orain dela hiruzpalau urte jatetxe desberdinetako parrillero familiak bildu ginen parrilla nondik zetorren apur bat aztertzeke. Nik parrilla beti ezagutu dut, baina sakondu egin nahi genuen gaian. Nondik dator ohitura hau? Zergatik Getarian badaude eta beste kostaldeko herri batzuetan ez? Kuriositate horretatik abiatuta herriko parri-

Getariako portuan egin genuen hitzordua Beñat Gerekarekin. Irudian, txalupetara jaisteko pantalanean.
Jon URBE | FOKU

llero zaharrei elkarriketak egiten hasi ginen, gure aitona-amonai ere bai, nola hasi ziren jakiteko eta historia hori hobeto ezagutzeko. Eta hor ikusi nuen parrilla gainean jartzen dena ederra dela, baina horren atzetik dagoen historia ere bai. Nolabait emozionatu egin ninduen», azaldu du dokumentalaren ideia nola sortu zen.

«Ez nuen espero parrillak itsasoarekin horrelako lotura edukitzea, konturatzea parrilla ere itsasotik ekarritako zerbait zela –jarraitu du Gerekak–. Ikasten ari nintzen heinean pentsatzen nuen bazegoela hor zer kontatua. Eta gauzak kontatzea gustatzen zaidanez, modu desberdinetan izanda ere, horri ekin nion. Askotan esaten da Getaria herri arrantzalea dela. Esaldi ponpoxoa da, baina gero errealitatea arakatzen duzunean dena ez da horren polita, edo behintzat galdera sortzen da: Noiz arte izango da hori horrela? Hori zen barruan nuen galdera. Horri tiraka hasi nintzen».

Izan ere, eta familiako tradizio indartsu hori izan arren, pertsonalki itsas mundu horretatik asko urrundu izanaren sentipena berekin zuen aspalditik Gerekak, eta ez zela kasu isolatua, bere inguruko artean ere etengabe gertatzen ari den zerbait dela.

«Nire aitona arrantzalea zen, amonak arraina saltzen zuen, osaba arrantzalea da, aita parrilleroa... Nire familian itsasoarekin harremana egunerokoa izan da, baina konturatzten nintzen nik ez nekiela benetan bizitza hori nolakoa zen. Orokorrean getariar askoren kasua da: Artzaperaino iristen gara [portu gaineko begiralekua] baina hortik behera ez genuen urratsa ematen. Ez nekien sareak non jos-



ten dituzten, edo arrantzaleak itsasora joaten direnean nola egiten duten lo, sareak nola botatzen dituzten... Detaileak dira, baina gauza asko zeuden ezagutzen ez nituenak. Eta kuadrillan ere horrelako deskonexio bat sumatzen nuen. Kuadrillako baten ama arrain saltzailea zen, baina hura jubilatzen eta arrandegia itxi da; beste lagun bat Kofradiako presidentearen semea da eta hark ere ez dio bide horri jarraitu... Ikusten nuen deskonexio bat orain arte ez zegoena. Eta nolabait harrobian eten hori egoteak baduela eragina itsasoarekin harremana duten lanbideetan, dela sare konpon-tzen, dela beste hainbatetan».

%80TIK %20RA


Kezka horri erantzun bat aurkitu nahian, eta –aurkezpen ekitaldian onartu zuen moduan– bere buruarekin «zor» txiki hori kitatu nahian, ikus-entzunezko bidaia bati ekin zion getariarrak, egoera ikuspegi desberdinetatik aztertuz eta ikusleari hausnarketarako bide eder bat proposatuz.

Dokumentalak egiten du, alde batetik, egoeraren azterketa hotza, eta ematen duen datua benetan argigarria da: getariarren %80 dator itsas lanbideetan aritutako familietatik, baina getariarren %20 bakarrik bizi da gaur egun itsasoarekin harremana duen lan batetik.

«Egoera matematika bidez ere aztertu nahi nuen. Aplikazio bat sortu nuen eta herrian zehar galdetegi moduko bat banatu nuen, jakiteko apur bat zenbat jende zuten harremana familian itsas munduarekin, gaur egun jarraitzen zuten, zer iritzi zuten itsasoko mundu horri buruz... Erantzunak lehen unetik proportzio horretan joan ziren: 80-20.

«Askotan esaten da Getaria herri arrantzalea dela. Esaldi ponpoxoa da, baina gero errealitatea arakatzen duzunean galdera sortzen da: Noiz arte izango da hori horrela?»

«Ikusten nuen deskonexio bat orain arte ez zegoena. Eta nolabait harrobian eten hori egoteak baduela eragina itsasoarekin harremana duten lanbideetan»



Gereka, portuko margolanetako bat atzean duela. Jon URBE | FOKU

200 bat inkesta egin nituen eta kopuru hori igota ere ikusten nuen proportzioa ez zela apenas aldatuko. Ez da sekulako lagina, baina uste dut emaitza ez dela gehiegi aldatuko».

Bestetik, artearen bidez ere egin nahi izan du Gerekek hurbilpen bat. «Dantzaz elkar-tearekin asko aritzen naiz lanean. Aurreko dokumentalean ere beraiekin aritu nintzen. Artearen ikuspuntua ere sartu nahi nuen, bestela ematen duelako itsasoa arrantzale kontua bakarrik dela, eta ez. Itsasoak guztioi ematen digu asko, inspirazio iturri bezala adibidez, edo arnasa hartzeko eremu bezala. Arteak hori beste ikuspuntu batetik kontatze-ko aukera ematen du eta nahi nuen itsasoaren beste irudi bat ere eman. Apur bat metaforikoagoa, abstraktuagoa. Eta bakoitzak ateratzea bere irakurketak ere. Galdetzen didate: 'Hi, dantzaria sarean biltze horrek zer esan nahi dik?'. Bada, bakoitzak egin dezala bere irakurketa, lan hori egin dezala ikusleak ere», aldarrikatu du Beñat Gerekek.

IRTENBIDE MAGIKORIK EZ

Baina matematika eta artearekin batera, batez ere elkarrizketa ugari –«eta egin ditudanak eta azkenean sartu ez ditudanak!», gogoratu du Gerekek–. Egoera hobeto ulertzeko testigantza baliotsuak, nahiz eta askotan protagonis-tenganako hurbilpena erraza ez izan egileentzako.

«Moilan kamerarekin azaltzen nintzenean berehala galdetzen zidaten: 'Zer behar duk?'. Azalpenak eman behar dituzu, eta beraiek ere sarean apur bat sartu. Gero primeran moldatu gara, etxerako arraina eman ere bai, baina hasieran kosta egiten da. Ez da in-

guru errazena hasieran, beraiek ere mesfidantza puntu bat izaten dutelako askotan, baina behin muga hori moztu duzunean oso gertukoak dira. Lehen kontaktua da zaile-na, gero erraz joaten da harremana. Eta gero kasualitateak ere izaten dira. Sarea jasotzen zegoen arrantzale baten elkar-rizketa, adibidez, ez zegoen programatuta. Galdera bat egin, hitz egiten hasi zen eta kamera jarri nuen. Eta askotan planifikatu gabeko horiek bi-ziagoak izaten dira. Zuk ideia bat daukazu buruan baina gero agian ez da zuk espero beza-la ateratzen».

Arrantzale askorekin –gazteak, zaharrak, bertan jaiotakoak, kanpotik etorritakoak...–, sare konpontzaileekin, sukaldariekin, zientzialariekin, historialariekin... batzuekin eta besteekin hitz eginda, Gerekek onartzen du egoerari «irtenbide magikorik» ez diola ikusten, baina bidean kontuan hartu beharreko hainbat irakaspén jaso dituela.

«Galdera baldin bada ea oraindik herri arrantzale bat garen, edo behintzat itsas herri bat, badirudi baietz. Baina inguruko herrietara begiratzeari nahikoa da konturatzeko etorkizunean zer etor daitekeen. Batez ere jarraipen hori ez dagoelako, eta ez delako horretan lagundu ere. Nik beti futboleko adibidea jartzen dut: harrobia zenbat lantzen den gero horrek bere fruituak eman ditzan. Bada, itsasoan berdin: harrobia ez bada lantzen, eta nik ere ez dakit nola egin daitekeen, ikusten da gero oso zaila dela ohitura horiek berreskuratzea. Eta argi dago: itsasoko lan horrek bere orduak eskatzen ditu eta gaur egun beste bide batzuk bilatzen ditugu bizitza erosoago



Goian, dokumentalaren «making-of»-eko irudi bat. Behean, filmeko hiru fotograma: ontziak arrantzara batera irteten diren une hunkigarria, aita-semeak arrantzan «Alain-bi» ontzian eta sare konpontzaileak lanean egun eguzkitsu batean. TXIKOTA KOMUNIKAZIOA



baten esperoan. Berdin gertatzen da nekazaritza munduan eta antzeko beste lanbideetan ere», hausnartu du.

Eta etorkizunera begira jarrita halaxe jarraitu du: «Arraina jaten jarraitu beharko dugu. Itsasoak ematen du. Norbaitek arrantzara joan beharko du. Ez dakit formula zein den. Kanpotarrak izango dira? Bada, agian bai, baina honek nolabaiteko jarraipena izan beharko luke. Nik etorkizuna ikusten diot, baina lege aldetik traba asko dituzte gazteek hasteko eta hori ere begiratu beharko litzateke. Eta berdin sare konpontzen. Norbaitek konpondu beharko ditu sareak. Nahi izanez gero jarraipena izango duela iruditzen zait».

EZEZAGUTZA, ARAZO HANDIA

Hala ere, Gerekak uste du arazoa ez dela legedia edo lan baldintzak soilik. Herritarrek beren egunerokoan ere babestu dezakete arrantzaleen lana erabaki txiki baina garrantzitsu batzuekin. «Hor badago beste puntu garrantzitsu bat. Hemen aurrean ditugun ontzi hauek eguneroko arrantza egiten dute, hauek ez dute bixigu edo erreboilorik harrapatzen. Askotan Getaria famatzen dugu bixigua edo erreboiloa jateko leku gisara, eta horiek ez dira berez hemen arrantzatutakoak. Hor ere he-

rritarrek badu erabakitzeke ahalmen bat arrandegira joaten denean. Edo jatetxe batera joaten garenean. Noski, hemengo jatetxeetako bixigu eta erreboiloak arrain freskoak dira eta kalitate ezin hobekoak, baina bertako arrantzaleek harrapatutakoa edo sasoiko arraina baloratzen ere ikasi beharko genuke. Hori eginda ere ematen zaio buelta gurpil horri. Azken batean, gazte horrek arrantzale bizitzarekin jarraitu nahi badu etorkizuna izan dezan», eskatu du.

Horretarako, ordea, oso garrantzitsua da itsas kultura bat izatea, eta ezezagutzak ez du laguntzen erabaki horiek zuzen hartzen, Gerekak bere burua adibidetzat jarritz aipatzen duenez. «Nik neuk ere arrantzaleekin joan eta ez nekien zer arrain ateratzen zuten, edo mariskoa ere ateratzen zutela, edo potak. Ez nekien. Alde horretatik, ezezagutza handia da. Edonori galdetu eta famatuko dizu Getariako bixigua edo erreboiloa. Bada, Getariakoak ez dira. Izango dira Tarifakoak bixiguak edo Holandakoak erreboiloak. Edo arrandegira joaten garenean erosotasunagatik legatza garbituta hartzen dugu, edo izokin zati bat, auskalo nongoa. Erabaki horiek badute beren soka eta herritar bezala guk ere egin dezakegu gure saiake- ra. Ez da itsasora joaten dena-

Datua argigarria da: getariarren %80 dator itsas lanbideetan aritutako familietatik, baina %20 bakarrik bizi da gaur egun itsasoarekin harremana duen lanbide batetik

«Galdera bada ea oraindik herri arrantzale bat garen, edo behintzat itsas herri bat, badirudi baietz. Baina ingurura begiratzea nahikoa da konturatzeko etorkizunean zer etor daitekeen»

ren ardura bakarrik. Eta berdin gertatzen da barazkiekin, frutarekin... Kontzientzia apur bat izatea erosterako garaian».

BIGARREN LAN LUZEA

“Itsasoak pizten gaitu” Beñat Gerekak zuzentzen duen bigarren ikus-entzunezko luzea da. Aurrez “Basotik itsasora” dokumentala zuzendu zuen, 2019an estreinatu zena. Lehengo eta oraingo errefuxiatuen errealitatera hurbilpen bat da, non arteak, eta dantzak bereziki, pisu handia duten.

«Hori izan zen mota honetako lehen lan luzea. Dantzas elkarreak harremana egin zuen Gurs-eko errefuxiatu kanpamenduko elkarrekin eta dantza koreografia bat egin behar zuten komemorazio baterako. Eta hitz egiten ari ginenela, erdi kasualitatez hori ere, ideiak botatzen hasi ginen. Hotz Zarautz elkarrekin harremana egin genuen, Siriako neska bat ezagutu genuen... Eta gidoiari forma ematen hasi ginen. Era berean, arteak eta kulturak egoera zail horietan duten garrantzia ere nabarmendu nahi genuen», nabarmendu du Gerekak.

Bilbon Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi zuen getariarrek eta bere lehen lanak Bainenekin egin zituen, pilota eta sukaldaritza saioetan. Bost bat urte egin zituen bertan, eta gerora bakarkako ibilbidea hasi zuen. «Fleischmann's Cooking Group ostalaritza taldearentzat errezeta batzuen argazkiak behar zituzten. Denbora neukanez beste lan batzuk egiten joan nintzen eta bolumena hartzen joan zenez produktora bat sortu nuen: Txikota Komunikazioa. 2020az geroztik bakarka ari naiz, jende gehiago behar bada kontratatuz. Bideo korporatiboak, ar-

gazkiak... sortzen dena egiten. Eta tarteka horrelako proiektuak sortzen direnean, horiek gauzatzen. Azkenean gauzak kontatzea gustatzen zait, bai bideo bidez, bai argazki bidez edo podcast baten bidez. Askotan galdetzen didate ba ote dudan zineman, adibidez, erreferenterik, eta ez daukat halako harreman berezirik. Gehiago da buruan dudana kontatzea, berdin zait zer formatan».

Bere lehen dokumentalak izandako ibilbide arrakastatsuekin oso pozik dago: «Ordubete inguruko lana izan zen, baina gerora dantza eta ikus-entzunezkoa aparte ere joan izan dira. Erakusketa bat ere antolatu zen, hiru formatu desberdin eskaintzeko. Dokumentala ordu erdira ere jaitsi genuen, dantza emanaldiarekin batera eskaintzeko, eta emanaldi hori oraindik ere martxan dabil. Pozik gaude, bere ibilbidea egiten ari da».

Eta bere nahia estreinatu berri duen filma ere ahalik eta leku gehienetan erakustea da. «Behin lana eginda dagoela, hustuta geratzen zarela, horri eman behar zaio ikusgarritasun apur bat. Errentabilitate aldetik ere bai, egindako lan horri txispa pixka bat atera nahi diogu. Herriz herriko ibilbide bat egin nahi genuke, lana kostaldean zehar erakusten joateko [kontaktua egin nahi duenak info@txikota.com helbidera idatz dezake]. Ea nola moldatzen garen, promozio lan hori ez dudalako horrenbeste kontrolatzen eta apur bat galduta sentitzen zarelako batzuetan», dio Gerekak, dokumentalean Getariari buruz esaten direnak euskal kostaldeko beste hainbat herritan ere ulergarriak eta aplikagarriak direla jakitun.

«Arrandegira joaten garenean erosotasunagatik legatza garbituta hartzen dugu, edo izokin zati bat, auskalo nongoa. Erabaki horiek badute beren soka»

«Askotan galdetzen didate ba ote dudan zineman erreferenterik, eta ez daukat halako harreman berezirik. Gehiago da buruan dudana kontatzea, berdin zait zer formatan»

Beñat Gereka, kamerarekin dokumentalean parte hartzen duten dantzarien koreografia bat grabatzen.
TXIKOTA KOMUNIKAZIOA





EXPRAI

iRRITZIA:



—Ehm... barkatu, baina erregin britainiar bat agertu zait nire zopan.

BIDEKO ESKOLA

Mundu osoan barrena abentura erraldoi baten lehen etapako kontakizuna

 **BIDAIK** / Xabier Izaga Gonzalez

Iñaki Etxebarria eta Angeles Rivera gasteiztarrek Ameriketan zehar “Francisco de Vitoria” espedizioa abiatu zutenetik argi utzi zuten euren helburua etxera itzultzea zela, munduari itzultzeko zerbait garrantzitsua ikasi dutelakoan itzuli ere. «Errealitatea? Fikzioa? Kontakizun honetan dena benetakoa dela sinetsi nahi dugu, gizakiok elkar ezagutzeko dugun beharra bezainbeste. Azken batean, pertsonak elkar maitatzera ohitzen gara elkar ezagutzen dugunean eta, ziur aski, elkar hobeto ezagutzen dugu elkar maitatzen ikasten dugunean». Dagoeneko liburu dendetan salgai dagoen “La escuela del camino” eleberraren kontrazaleko testua da.

Etxebarria kazetaria da, Basaurin jaio eta duela 52 urte Gasteizera joan zena. “La costi-

Munduari bira emateko proiektuari berriro ekin baino lehen, Iñaki Etxebarria kazetariak eta Angeles Rivera argazkilariak duela 20 urte baino gehiago Ameriketan zehar egin zuten lehen etapan egindako ikerketak «La escuela del camino» eleberrian jaso dituzte, herrialde haietako biztanlerik behartsuenak ardatz hartuta.

“Ila de Eva” eta “El universo existe por amor” kontakizun laburren bildumak argitaratu ondoren, eleberri bi idatzi zituen: “La dama andante” eta “Agüita seca”. Orain “La escuela del camino” argitaratu du, bidaia eta abenturazko eleberria, Ameriketako kontinentean egindako kazetaritza ikerketak biltzen dituen, herrialde ba-

koitzaren historia eta biztanle behartsuenen kolektiboak ardatz dituela. Haren emazte eta bidaide Angeles Riverak argazkiak egin zituen abentura erraldoi horretan.

LEHEN ETAPA, AMERIKETAN ZEHAR

1990eko abuztuaren 26an abiatu ziren New Yorketik. 13 egun lehenago, Santurtzikoko portuan

Panamako Coco-Solo portuan, autoa ontziratzen, Venezuelara joateko. Angeles RIVERA

land roverra ontziratuta eta harantz abiatu ziren. Sei urte eta erdiko etapa izan zen, 100.000 kilometrotik gora eginda. Angeles urte eta erdi lehenago itzuli zen, bere bigarren haurdunaldian.

Iñakik, beraz, urte eta erdi gehiago eman zuen Kolonbian, zenbait ikerketa egiteko. «Saltsa guztietan sartu nintzen han», dio. Ziztuan atera behar izan zuen, narkotrafikatzaileak, gerilla bat, Bogotako alkatea jarraika zituela. «‘Desechables’ [erabili eta botatzekoak] esaten dieten horien artean sartu nintzelako, poliziak garbitzen zuen jendearen artean ikertzen hasi nintzelako, alegia».

Lelo bat daramate beren bidaietan: “Herrien batasunaren alde”. New Yorken, NBEko ordezkari batek hartu zituen eta erakunde horretaz uste dutena esan omen zioten: «NBE existitzen dela zerbait hobe existi ez dadin».

New Yorketik Los Angelesera eta Kalifornia Behereko mugara abiatu zirenean, Angelesek eta Iñakik beren buruari galdeztzen zioten zein kolektibori emango zieten garrantzi handiena. Ikusten joango zirela esan zuten, eta Mexikora sartu orduko, emakumeena zela ikusi zuten, «alde handiarekin».

Estatu Batuetan ez zeukaten ikertzeko aparteko interesik, edo ez behintzat beste herrialde batzuetan izango zutenaren parekoa, ezagunagoa baitzuten hango errealitatea.

Kaliforniatik Mexikora jo zuten. Han 15.000 kilometro egin zituzten. Estatu Batuetan egindakoa bi halako. Mexikok «liluratu» egin zituen. «Zoragarria da. Magia berezia du, bere antzinako historiagatik-eta, Peru bezala, oso herrialde berezia da». Handik, Guatemalara jo zuten, dirurik gabe geratu eta



lehen erreportajeak saltzen hasi ziren, Emakunderi. Estatu espainolaren zentro batean lan egin zuten, Angeles sukaldari eta Iñaki zerbitzuburu. Zortzi edo bederatziz hilabetea ateratzen zuten diruarekin, Erdialdeko Amerikako gainerako herrialdeetan zehar jarraitu zuten beren abentura.

Panaman ere hilabetez jardun zuten lanean, eta herri diru-bilketak egiten hasi ziren, batzuk kolaboratzaile gisa eta beste batzuk babesle gisa, gehienak enpresa txikiak eta baten bat handia, batez ere euskaldunenak.

25 enpresaren laguntza lortu zuten azkenean, Santiago Txilen, Buenos Airesen, Rio de Janeiro eta Bogotan. Kontuak eginda dauzkate: «Hau bukatu nahi badugu, kostua milioi erdi euro ingurukoa izango da».

1997ko otsailean iritsi ziren Euskal Herrira. Lucho seme nagusiak hiru urte zituela. Lucho Xabier Santiago Txilen jaio zen 1993ko abuztuan; latinoamerikarrek oso ondo hartu zituztelako jarri zioten lehen izena, esker onez, Lucho oso izen arrunta baita Hego Amerikan. Haren anaia Gandhi Gasteizen jaio zen, ama Kolonbiatik itzuli zenean. Panaman animatu ziren seme bat izatera. Urte bi lehenago abiatuak ziren «eta esan genuen: badirudi ez zaigula ezer gertatzen, badakigula mugitzen», eta haurra izatea erabaki zuten.

LAU ARRETAGUNE NAGUSI

Emakunderentzako erreportajeak idazten hasi zirenean, kontuan izan zuten sektore nagusia emakumeena zen, baina oro har lau izan dituzte aintzat: emakumeak, indigenak, etxegabeak eta kaleko haurrak.

“La escuela del camino” libururako, egin zituzten argazki



Angeles Rivera Lucho semearekin eta «Kenia» txakurrarekin, Patagoniako erdigunean; haien atzean, laku izoztutak. Angeles RIVERA

guztietatik milatik gora hartu eta gero, horietatik 620 hautatu zituzten, liburuan agertzen direnak. Iñakik behin eta berriaz zabaltzen du liburua. Halako momentuak gogoratzen dituen, argazkiak erakusten ditu: «Hemen, El Salvadorren, nekazari kooperatibekin harremanetan jarri ginen eta euren bidez gerrillarekin ere bai». Beste argazki batzuetan kaleko umeak agertzen dira, Guatemalan, esate baterako: lurtean ume bat, lo, burua etzandako txakur baten gainean duela; beste batean, esnifatzeko itsasgarriz hornitzen zituen haurra.

«La escuela del camino» bidaia eleberriak Amerikan egindako kazetaritza ikerketak biltzen ditu, hango historia eta biztanle behartsuenen kolektiboak ardatz hartuta

Lehenago Santurtziko portuan land roverra ontziratu eta 1990eko abuztuaren 26an New Yorketik abiatu ziren. Sei urte eta erdiko etapa izan zen, 100.000 kilometrotik gora eginda


Beste argazki bati begira geratuta: 18 urteko neska, beste hainbat eta hainbat bezala umetatik prostituzioan jardun behar izan zuena: Poliziak jazarria, «alde egin genuenean ez genuen ikusi, eta ez dakigu zer gertatu zen berarekin». Halako hamaika istorio kontatu dute eleberrian, hitzez eta irudiz.

Mexikon hasi ziren emakumeen egoerari erreparatzen, eta herrialde guztietan sumatu zuten berdintsu. «Eurek egiten dute dena, inolako etekinik gabe, aitorpen nemiñoena jaso gabe; zenbait kasutan eurak dira herrialde osoa, jendeak aurrera egin dezala lortzen dutenak, egoerarik txarrean ere. Baina inork ez zuen haien gainean hitz egiten», dio Iñakik.

Indigenei dagokienez, beste horrenbeste gertatzen da. «Eurek eusten diete balioei, nekez bizitzea egokitu zaizkien herrialdeetan, trukean ezer jaso gabe. Gutxietsiak, esplotatuak... Haien zenbait gatazkarren berri eman genuen, esate-

rako, Mexikoko triki herriarena, gobernadoreek espoliatu egiten zuten herriarena; aberastasunak kendu eta indigenak hiltzen zituzten edozein aitzakian... eta horiek ere isilaziaz». Iñakiren ustez, Hego Amerikako jenderik eskuzabarena jatorrizko bizilagunak dira.

Etxegabeek bereganatzen dute eleberriaren laugarren fokua. Eurek “kaleko bizilagun” deitzea omen dute gustuko, «eta niri oso hitz egokia iruditzen zait», dio Iñakik. «*Homeless* hitza sortu da, eta AEBetan milioika *homeless* daude». Izan ere, leku guztietan ugari ikusi badituzte ere, inon ez AEBetan beste. «Han dirurik ez baduzu, lana galtzen baduzu, osasun txartelik gabe eta ezer gabe gelditzen zara. Egun batetik bestera kale gorrian zaude eta inor ez zaizu laguntzera joango. Zubi azpian, bazterretan ikusi ditugu, Kolonbian, Guatemalan eta beste leku askotan bezala».



Lehenengo etapari dagokion lana argitaratuta, sei aleko saila egin nahi dute, lan bat etapa bakoitzeko, Ameriketako ibilbi-dearen gaineko izenburu bera erabilita. Iñakik nabarmendu nahi du lanaren ikuspegi historikoa, «neurri handian haurrek eta gazteek ikasten dutenarekin bat ez datorrena, eta oso garrantzitsua da zerotik hasi eta historia mugitu duten benetako arrazoiak ikustea, gaur egun herrialdeak diren bezala izatea eragin duten motibo horiek».

BIGARREN ETAPA, AFRIKA

Euskal Herrira itzuli zirenean, semeei sustraiak eman nahi zizkieten, «gureak». Angelesek Iñakiri esan zion bakarrik jarraitzeko, bera haurrak artatzen geratuko zela, eta Iñakik ezetz. Aurrerago biok proiektuarekin jarraitzeko akordioa egin zuten. Semeak beren kabuz baliatzeko gai direnean, biraren hurrengo etapei ekingo diete. Haien asmoa munduko herrialde guztiak ezagutzea

da, sartzen uzten dieten herrialde guztiak.

Afrikan zehar igaroko da bigarren etapa, beharbada Iñakik bakarrik egingo duena, *Kenia* txakurrarekin. Edonola ere, Angelesek erabakiko du badoan ala ez. Argazkilaria den aldetik, joatea nahi luke Iñakik, baina arrisku handiak izango direla uste duenez, emaztea hemen geratzea nahiago duela dio.

Iberiar penintsulatik abiatuko da bigarren etapa hori. Gehienez urte bi iraungo duela uste du Iñakik. «Eta ni urte bi barru erretiro pentsioa ko-bratzen hasiko naizela uste

Goian, Iñaki, Angeles, Lucho eta «Kenia» Uruguako La Trainera euskal jatetxearen ondoan. Ezkerrean, Iñaki Etxebarría Gasteizko Alde Zaharrean.
Angeles RIVERA - Raul BOGAJO
| FOKU

Semeak beren kabuz baliatzeko gai direnean, biraren hurrengo etapei ekingo diete. Haien asmoa mundukoko herrialde guztiak ezagutzea da, sartzen uzten dieten herrialde guztiak

«Gure ezagutza behar denerako eskaini nahi dugu. Nik ikastetxerik onenetan ikasi dut, Bilbon eta Gasteizen, baina bizitzako eskolatik ikasi dut gehien. Horregatik da 'bideko eskola'»

dut. Ez zait batere gaizki etorriko proiektuan jarraitzeko. Bestela, berdin, idazleak bu-ruak erretiroa eman arte ez dira jubilatzen».

Afrikan 54 herrialdetara joan nahi luke. Badaki oso zaila izango dela denetara sartzea. Kamioiarekin ezin bada, oinez sartuko dela dio, «gerran badaude ere, sartzen saiatuko naiz». Hiru urteko ibilbidea egingo du, gutxi gorabehera.

EUROPA, ASIA, OZEANIA...

Ondoren, Europako hegoalde-tik Ekialde Ertainerainokoa egingo asmoa dute, hirugarren etapan. Laugarrenean, berriz, India eta Asiako hego-ekialdea eta Ozeania. Australiatik Iranera jotzeko asmoa dute, bosgarren etapari ekiteko, Erdialdeko Asiako herrialdeak bisitatzeko, «-tan-ez amaitzen diren herrialde horiek guztiak», Mongolia, Txina eta Ekialde Urrunearaino, Japoniaraino, hain zuzen.

Seigarren eta azken etapa Ipar Handia izango litzateke, Si-

beriatik Alaskaraino, eta handik NBERen egoitzara itzultzeko asmoa dute, bertan hartzen baituzte hitzaldiren bat eman edo prentsaurrekoren batera deitzeko asmoz. «Maiseatzeko, jakina, eta gure ezagutza behar denerako eskaintzeko. Horregatik da 'bideko eskola'. Nik ikastetxerik onenetan ikasi dut, Bilbon eta Gasteizen, baina seguruenera bizitzako eskolatik ikasi dut gehien».

Kazetaritza pasioa du Iñakik, bereziki ikerketa kazetaritza, eta berak edan duen iturri nagusia Manu Leginetxe dela dio. «Manu Leginetxek beste batzuekin munduari bira eman zion eta 42.000 kilometro egin zituen. Guk, bukatzen badugu, 400.000 inguru egingo ditugu. Munduaren inguruko bidaiarik luzeena, lurrez, Guinness errekorra 250.000 kilometrokoa da. Guri horrek berdin digu, baina gure babesleei ez, jakina».

Oraindik gutxienez hamabi urteko bidaia dute aurretik.



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Ardatza

Martin Larralde ez da sekula itzuli, baina itzuli balitz haurrak ikusiko zituen kalean, beraiek baino motxila handiagoak bizkarrean lotuta, eskolara bidean. Ordenagailuak asmatu ziren, eta pantailek liburu asko ordezkatu omen dituzte (aukera hori daukaten etxeetan behintzat), baina haurrek eskolara bidean jarraitzen dute irailean. Udazken gogorra datorrela abisatu digute meteorologo eta ekonomialariek: Ukrainak sutan jarraitzen du eta tximino baztangari buruz hitz egiten dute albistegiek. Lehor daude bazterrak: herriko festen ondorengo garga-gardo upelak baino hutsago omen dago Esako urtegia, eta tenperatura prezioak adina igo dela diote eguraldi iragarleek. Eta aipatzen ez badute ere, Israelek tiroka jarraitzen du Palestinan eta baita Turkiak Kurdistanen ere. Oporretatik bueltan hozkailua hutsik aurkitu eta supermerkatuko kutxan hartu zenuen sustoa oraindik

gorputzean daukazu. Lehen gutxi erabiltzen zenuen autoa erabat utzi eta autobusean ibiltzen zara hara eta hona. Izututa igaro dituzu abuztuko egunak: koronabirusa, gerrak, klima aldaketa, Iberdrolaren fakturak... Gehiegi izan da zuretzat. Mundua bukatzera zihoala pentsatzerainoko larria sentitu zenuen. Eta, hala ere, hemen da iraila.

Eta urtero bezala, etorri bakarrik ez, harrapatu ere egin zaitu jadanik uda ez den baina udazkenera heldu aurreko garai zehaztugabe honek. Iratzargailuak jo ondoren bilintzi-balantza ibiltzen zara logelaren ilunpean, bezperan auskalo nork tranpa moduan estrategikoki kokatutako etxeko zapatila galduekin estropezuka. Uda atsedeen hartzeko izaten omen da, baina ezagun dute lo falta zure begi zuloek. Irratia piztu eta Ingalaterrara eraman zaitu esatariaren ahotsak ogi txigortua presaka ahoratzen duzun bitartean. Elizabeth II.a hil omen dela eta aztoratuta dabilta guztiak: zal-

gurdian eramango omen dute gorpua Londresen barna.

Erdi Arora itzuli ote garen galdetu dizu esna daukazun neurona bakar-rak, ogia hortz artean kraskatzen duzula. Donostiara bidaiatu du esatariaren ahotsak ondoren: Zinemaldia hasi omen da. Eta honek zer zentzu daukan galdetu dizu nagiak ateratzen ari den bigarren neurona batek. Nora doan zalgurdi bat pikutara doan mundu baten gainean; zertarako balio duten alfonbra gorri eta jantzi distiratsuek, Maria Kristina hotelaren pareko flash eta autografo zaparradek. Hau bukatzera badoa, ez ote genukeen beste zerbait sortzen hasi beharko.

Kolpetik itzali duzu irratia. Ordulariaren orratza zintzurrean nabari duzu. Heldu da iraila. Normalitatea deitzen genuen inertzia erora itzuli gara. Autoak bozina-joka ari dira kalean. Munduak bueltaka jarraitzen du. Jakin nahiko zenuke ea ardatzik mugitu ote zaion. •



Haurrek eskolara bidean jarraitzen dute irailean.

Luis JAUREGIALTZO | FOKU

{ koaderno } Iker Barandiaran

Hemen ez da ezer gertatzen

Herritarrak gero eta urrunago sentitzen dira politikatik eta alderdi politikoetatik; zeresanik ez, gazteak. Hala ondorioztatzen dute aspalditik inkestek: alderdi politikoak erabat urrun sumatzen dituzte; ez dute uste euren alde ezer egingo dutenik, kontrakoa agian. Gazteez ezin dut iritzi borobilik eman, neuk ere urrun baititut, baina neurri batean ulertzen ditut.

Zer esan, baina, oro har –gero eta gehiago, gainera– apolitikoak direla diotenez? Zer da, bada, apolitikoa izatea? Apartidista izan zaitezke, bai, arrazoi eta ikuspuntu oso desberdinetatik abiatuta gainera, baina apolitikoa ez! Zure erabakiek, egunerokoek, hautu politikoak dituzte barne eta horiekin hein batean lerrokatu egiten zara, eta zure erabakiek ondorio handiak –askotan uste duzun baino gehiago– dituzte beste batzuen gan.

Askotan erabili izan dut egunkarien adibidea, nahiz eta adin batetik behera ez diren aspaldi erosten, ulergarriagoa delako. Gizartearen begietara, adibidez, GARA edo “Berria” erosteak badauka ekintza edo aukuraketa politikotik, baita “La Razón”, “El País” edo “El Mundo” erosteak ere; baina, aldiz, askok sinistuta daukate egunkari salduenak diren “Diario Vasco” edo “El Correo” erosteak ez daukala ezer posizionamendu politikotik. Bai zera!

Duela urte asko, Arrasaten, Mariano Ferrer kazetariak hitzaldi batean, entzule batek galdetuta, hala deskribatu zuen “DV”-k betetzen duen papera –botere talde batzuentzat funtsezkoa dena–: «‘Diario Vasco’-k sinistarazi nahi digu hemen ez dela ezer gertatzen». Gustatu zitzaidan sintesia, hain zuzen ere, argi utzi zuelako –nik egin dut irakurketa– frankismotik gaur egunera arte goserik pasatu ez duen komunikabide talde honek ezkutatu egiten dituela gizartearen ondoreak eta arazoen jatorrizko iturriak, aldatu ez daitezen;

eroso dagoelako egoera horretan. Zergatik? Bada, galdetu komunikabide talde horren atzean dauden botere taldeei. Eta aldi berean, irakurleak entretenitu egiten ditu hutsalak diren kontuekin, baina bere azakeriagatik –hain sinpleak gara!– antza interesa pizten dutenekin.

Eta hori guztia ere politika egitea da, jakina. Horregatik egiten dit sabelak buelta lehen «gaztetxeroak» izandako batzuk igandetan egunkari hori besapean ikusten ditudanean. Bai, seguruenik realzaleak izango dira, baina kontziente dira zer kontsumitzen duten? Ezetz esango nuke, eta hori da gehien kezkatzen naue-na, arazoen jatorrizko iturriak erakutsi gabe, analisia egin gabe, soilik entretenituz, tantaz tanta bustitzen dituela: izan daiteke Euskal Herriko gatazkaren errelatoaz, etorkinekiko aurreiritziez, Ukrainako gerraz edo poliziaren jazarpenak zurrizteaz, beste askoren artean.

Adibidez, Euskal Herrian bizi izan dugun gatazka neurri batean leundu den honetan, batzuentzat jada ez

Zer da, bada, apolitikoa izatea? Apartidista izan zaitezke, arrazoi eta ikuspuntu oso desberdinetatik, baina apolitikoa ez!

dago gaizki ikusia polizia izatea eta batzuek horren bila jotzen dute. Nahiz eta poliziak –kanpokoak zein us-tez hemengoak–, testuingurua leunagoa den arren, justifikatu gabeko basakeria erabiltzen jarraitzen duen inpunitate osoz. Eta basakeria hori beti bezala herritarren kontrakoa –langileak, feministak, jubilatutak, antifaxistak...– bada, nola ez da, bada, poliziei herritarren espazioetan parte hartzea mugatuko? Giza eskubideengatik, errespetuagatik...? Bada, has daitezela beraiek eskubide horiek betetzen.

Funtsean, apolitikoa izatea da korronteko norabidean jarraitu eta horren kontziente ez izatea; tristeza, benetan. •

«Nora, norekin eta nola jakin gabe bidaiatzea izan da onena»

Egun 45 urte ditu Aitor Iguiñitzek. 2006an 29. Eguneroko bizitza erosoan atzean utzi eta bizikleta-ko pedalei eragiten hasi zen 16 urte atzera. Gurpilean jarraitzen du, bidaiatzen jarraitzeko asmoa baitu, bizikleta albortzeko asmoa izanda ere: «Mundua beste modu batean ezagutzen jarraitu nahi nuke», dio, jaioterriko erosotasunean.

Askotan entzungo zenuen galdera: nolatan murgildu zinen tamainako abentura luzean?

Ez zen halako inflexio punturik egon. Bidaiazalea izan naiz betidanik. 2006an hartu nuen erabakia. Beti duzu lana, soldataren segurtasuna galtzeko beldurra, baina burugogorra naiz, eta lagunei eta gurasoei asmoa nuela jakinarazi ostean, ez zegoen atzera bueltarik.

Gertukoek esango zizuten ea erotu ote zinen.

Jendeak ez zuen ulertu. Gure gizartean garrantzitsuena lanpostu on bat edukitzea da. Horrekin bizitza erdia egina duzu, hori ikasten da. Nik gauzak ezagutu, bizitzeko era ezberdinak ezagutu nahi nituela erantzun nien. Bueltatzen nintzeanean beste lanen bat bilatuko nuela, zortzi urteko eskarmen-tua banuelako. Orduko nagusiak, gainera, esan zidan bi urte baino lehenago bueltatzen banintzen lana gordeko zidala, pentsa! Horrek eman zidan abiatzeko azken bultzada. Jendeak bidaia luzeetan murgiltzen zarenean gerraren batera, edo deserosoa den zerbaitetara zoazela pentsatzen du, baina ez da hala. Izango balitz ere, edo etxera bueltatzeko gogoa sortuz gero, klik batean egune-

roko bizitzara bueltatu zaitezke: hegazkin txartela hartu eta egun pare batean etxean zaudede.

Norantz abiatu zinen? Hori ere garbi izan al zenuen?

Nepal izan dut betidanik jo-mugan. Hegazkinean joan nintzen hara, bizikleta hemendik eramanda. Bizpahiru hilabete trekkingak egiten aritu nintzen, oinez. Kontaktuak egin eta bizitza ezberdin batean murgiltzeko. Ingelesa ere ikasi nuen, neska lagun baten laguntzarekin, eta gustura, maila kaskarra bainean. Ondoren hasi nintzen bizikletan. India aldera mugitu nintzen, errepide lau eta erosoetatik, eskarmentu handiegirik ez neukalako. Chitwan Parke Nazionalean eman nituen Gabonak, bakar-bakarrik, baina gustura.

Bidaia luzeetan ondo hastea garrantzitsua izaten da, beldur horiek uxatze aldera.

Oso garrantzitsua. Ondo hasten bazara indarra ematen dizu jarraitzeko. Erabakiak hartzen dituzu egunero, konfiantza irabazi. Konfort gu- ne horretatik irtetea, egunero erabakiak hartu behar horrek sendotzen zaitu.

Indiatik jauzi handia eman zenuen.

Singapur aldera joan nintzen, hegazkinean. Gero Malaysia, Thailandia, Laos, Kanbodia, Vietnam, Txina, Tibet eta Nepal pasatu nituen, Himalaia zeharkatuz. Tibet aldean legeak urratuz, kontrolak gauez pasatuz-eta.

Momentu txarrik pasatu al zenuen lehen urte hartan?

Momentu txar zeri esaten zaion... Lehen egunetan non lo egin erabakitzea izan zen egune-ko unerik zailena, kanpin denda nirekin neramalako. Zailantza hori, ordea, desagertu egiten da berehala, erraz erabakitzen baituzu. Beharrezko ez diren gauzak beharrezko bi- lakatzen ditugu gure gizarte- an, eta horien preso gara. Bi- daiatzen, eguneroko martxan, 10 euroekin nahikoa eta gehiegi daukazu eguna egite-ko. Varanasin, Indian, gaixotu egin nintzen, birusen bat har- rrapatu. Lauzpabost egun eman nituen hotelean etzan- da, ezinean, baina banekien pasatuko zela. Ezustekoren bat izanda ere, beti iristen zara gu- re egunerokora hurbiltzen zai- tuen gu- ne turistikoren batera.

Nepalera bueltatu eta Laura Martinez ezagutu zenuen, zu- re bikote izango zena.

Bai. Nepaldik etxeraino bizi- kletan bueltatzeko asmoa gor- puztua nuen, dagoeneko, bai- na Bardia Parke Nazionalean Laura Martinez ezagutu nuen, eta bidaia elkarrekin egitea erabaki genuen. Zetaren Bide- tik, hain zuzen ere. Hilabete batzuk pasatu ondoren Daisu- ke bidaia-ria ezagutu genuen Uzbekistanen, bizikletan bi- daiatzen hamar urte zerama- tzan japoniarra. Hark Arabiar penintsulako eta Afrikako ma- pa handi batzuk erakutsi zizki- gun, eta bidaia- ren norabidea errotik aldatzea erabaki ge- nuen mapa haiek ikusita.

Alegia, aurrez finkatutako bi- deak azkar alda daitezkeela.

Eguneroko martxa egunean bertan erabakitzen genuen. Nepaldik etxera abiatu gine- nean lasai-lasai ibiltzen ginen,

AITOR IGUIÑITZ

BIDAIARIA

2006an hasi zen hara eta hona, bizikleta lagun, munduan barrena. 130.000 kilometro egin ditu hamarkada eta erdian, kontinente guztietatik. Etxera ere itzuli da sarri, indarrak hartzeko. Andoain jaioterrian da orain, baina ametsen makina prest du, bidaiatzen jarraitzeko, «bidaiatzea bizitzeko modu bat delako».

Andoni Urbistondo

geltoki edo ordutegi jakinik gabe. Muga bakarra bisaren baimena zen. Niretzat bizikletan bidaiatzea bizitzea da, ez kilometroak egitea. Bizi, hara edo hona zoazen bitartean. Tarteka lana egiten genuen sossak lortzeko, edo jende berezia ezagutzeko. Bizitza bidegurutze bat da, azken finean. Alde batera edo bestera joatea erabaki, bizitza zeharo ezberdina izango da zuretzat. Horrela ibiltzen ginen, bizitzak nora, norekin eta nola eramango gintuen arrastorik eduki gabe.

Herritar mordoa ezagutuko zenuten han eta hemen.

Tarteka dirua edo baliabideak zituzten herritarrekin elkartu gara, baina ia beti gutxi zeukan jendearekin. Gutxi dutenek, baina, daukaten apurra partekatzeko borondatea dute. Oso ezberdina da soberan eduki eta partekatzea, edo gutxi eduki eta partekatzea. Gutxien dutenek partekatzen dute gehien, eta hori jarrera bikaina da, ispilu izan beharko luke guretzat. Gurean kafe bat ordaintzeko komeriak ditugu sarri, eta bidaiatzen ez duzu halakorik bizitzen.

Uzbekistanen geratu gara. Han Afrika aldera joatea erabaki zenuten.

Arabiar penintsulan ibili ginen aurrena, eta handik Afrikara joan ontzi batean, Yemenetik Djibutira Itsaso Gorrian barrena, hain zuzen ere. Bertan bizi izan genuen bidai oso pasadizorik gogorrena. Musulman herrietako eskuza-baltasuna ezagutuz pasatu genuen urte oso bat, eta gauzak ontzitik jaitsi bezain pronto dirua eskatzen hasi zitzaizkigun. Eman genien, baina ez zuten ondo hartu, gutxi izango zelakoan edo, eta haserretu



Argazkiak: Jon URBE | FOKU

«Jendeak bidaiak luzeetan murgiltzen zarenean gerraren batera, edo deserosoa den zerbaitetara zoazela pentsatzen du, baina ez da hala»



ziren. Ura lortzeko ere komeria asko izan genituen, eta ur zikina saldu nahi ziguten. Beldurtu ginen, ez baikinena ohi-tuak. Komeriak izan genituen aste oso batean, eta ia-ia etxerako bidea hartu genuen, Etiopia, Sudan eta Egipton barrena. Azkenerako infernu hura atzean utzi genuen, Etiopian, eta Afrika hegoalderantz jarraitu genuen.

Zer bide, zehazki?

Etiopiatik Kenyara, handik Tanzania, Malawi, Zambia, Botswana eta Hegoafrikara. Han zazpi hilabete pasatu genituen. Meditazio erretiro batean hiru hilabete, eta beste hiru bat lanean sos batzuk egiteko. Swazilandia eta Lesotho ere bisitatu genituen... Ondoren Afrika Mendebaldeko kostalde guztian barrena iparrera egin genuen: Namibia, Angola, Kongo eta Kamerun. Laura

erori egin zen bizikletan, Cabindan, Angola ondoan. Kolpe handi samarra hartu zuen sorbaldan, ez zen osatzen, eta etxera bueltatu zen hegazkinean. Nik nire kabuz jarraitu nuen bizikletan. Urtebeteko epean etxean egongo nintzela banekien, eta Afrikako tarte hori osatu nahi nuen.

Ziur aski Afrika da kontinenterik ezezagunena guretzat. Nolakoa da, zure begietatik?

Oso interesgarria. Afrikarren irribarrea eta festa gogoa ez dut beste inon topatu, baina oso kontinente basikoa da, zentzu guztietan. Telebistan hemen daukaguna ikusten dute, eta noski, guk daukaguna nahi dute eurek ere.

2010aren amaieran itzuli zinen etxera lehen aldiz, ezta?

Bai. Kamerunen giltzurrunetatik gaixotu nintzen. Botikak

hartu nituen, baina ez nintzen osatzen, eta mediku batzuek esan zidaten zaintzeko, giltzurrunak izorratzen bazitzaizkidan heriotza arriskuan egon nintekeela. Etxera bueltatu nintzen hegazkinean.

Ezusteko kolpea izan al zen zuretzat?

Ez. Gauzak etortzen diren bezala hartzen ikasten duzu denborak aurrera egin ahala, eta etxera itzuli nintzenerako ja hurrengo pausoa pentsatzen ari nintzen.

Zein izan zen pauso hori?

2011 osoa etxean egin nuen. Furgoneta bat neukan, saldu nuen, eta martxa berriz. Etenak egitea ona da, bidaiak kanpotik aztertu eta egindakoaz hausnartzeko, grina pizteko berriz.


2011ko etxeko egonaldia zuen bidaiak sare sozialetan erakus-

ten hasteko erabili zenuten, ezta?

Bai. Ordura arte posta elektronikoa bakarrik bidaltzen nizkien lagunei. Ez ginen diru irabaziak lortzeko asmoz hasi. ‘Plantate’ izeneko bloga sortu genuen. Afrikan sekulako deforestazioa ikusi genuen, basamortu ikaragarriak, eta eskola edo ikastetxeetan haurrak kontzientziatu eta halako solasaldiak eskaintzea erabaki genuen. Musu truk, noski. Hala-koak Europan egitea zaila da, Afrikan edo Asian askoz errazagoa da, ateak parez pare irekitzen dizkizute. Bloga Laurak kudeatzen zuen, nik argazkiak atera baino ez. Bera idazle ona da, ni ez, eta liburua osatu zuen: ‘El mundo es mi casa’ da izenburua. Salgai dago egun ere, nahi duenarentzat, izen bereko webgunean. Youtube-en ere kanal bat ireki genuen.

Urtea ere ez zenuen iraun etxean.

Ez. 2011ren bukaeran etxetik Mongoliaraino joateko asmoarekin abiatu ginen. Nepaldik bueltan, Uzbekistanen, erdizka utzi genuen Tajikistan eta Pamir Highway, Pamir mendikateko bidea egiteko erronka, eta begiz jota geneukan. Pasatu genuen Pamir lepoa, baina negua sartuta zela iritsi ginen Ox hirira, Kirgizistanen. Zeropeko 20 graduko tenperaturekin ere ibili ginen. Ondoren Txina aldera joan nahi genuen. Mendi garai batzuk pasatu behar ziren, baina ezin, eta Oxen bertan pasatu genuen negua. Webgunea elikatzeke baliatu genuen atsedentxoak, eta gus-tura egon ginen. Toki ederra da Ox, Asia Erdialdeko azoka-rik handiena, eta hilabete batzuk ematen dituzun tokieta-ko egunerokoa hobeto ezagutzen duzu.



Mongoliara iritsi ostean, ezusteko gehiago Txinan.

Bai, bisa ukatu zigutelako. Xinjiang eskualdean astebete baino gehiago pasatu genuen, eta bertako agintariek turis-tek bertan hainbeste denbo-rarik ez zutela egiten argudia-tu zuten bisa ukatzeko. Kuala Lumpur-era joan ginen, Ma-laysiara, hegazkinez, eta han bidaia luze honetako bitxi-keria handiena bizi izan ge-nuen.

Bota.

Kanbodian geundela Dubaiko xeke batek kontaktatu gintuen, halako bidaia bilkura berezi bat egiten zuela-eta bere herrian (Dubai Travellers Festival). Bertara joatea nahi zuen, gastu guztiak ordainduta, joan-etorriko hegaldi eta guzti. Joan ginen, noski. Truke-an egin beharreko lan bakarra

«Kanbodian geundela Dubaiko xeke batek kontaktatu gintuen, halako bidaia bilkura berezi bat egiten zuela-eta bere herrian (Dubai Travellers Festival). Bertara joatea nahi zuen, gastu guztiak ordainduta, joan-etorriko hegaldi eta guzti»

gure bidaia kontatzea zen, konferentzia batean. Esperien-tzia bikaina izan zen, batez ere gure bizipenak beste bidaiarie-kin partekatzea.

Han geratzeko tentaziorik ez al zenuten izan, halako pago-txarekin?

Ez pentsa, xekearen lan eskain-tza ere jaso baikenuen. Bidaian jarraitu genuen, eta Kalkutara joan, Indiara. Himalaia osoa pa-satu genuen berriro, bizikletak han utzi, eta etxera bueltatu Ga-bonetan, etxeok bisitatzera. Etxean baserri zahar bat erabe-rritzen laguntzea eskaini zigu-ten, eta geratu egin ginen, berri-ro diru puska bat egiteko. Hiru urte generamatzan etxetik urrun, eta etxean tartetxo bat egiteko gogoak ere sartzen zaizu noizbehinka. Nire eta Lauraren gurasoak nagusiak dira, eta haiek zaintzeko gogoak ere la-gundu zuen.

Orduan zure eta Lauraren bi-deak banatu ziren.

Bai, bideak toki batera edo bes-tera eramaten zaituen bezala, norberaren asmoak ere alda-tzen dira. Banatu ziren gure bideak. Ondoren berriro abia-tu nintzen, Amerika osoa ze-harkatzeko, Argentinako Us-huaiaitik Alaskaraino.

Hilabete eta erdi eskas dar-mazu orain etxean. Ziur beste asmoren bat buruan dauka-zula orain ere.

Bai, bai. Garbi daukat berriro abiatuko naizela. Akaso bizi-kletarekin ez, energia asko xahutzen duzulako, baina martxa egingo dudala ziurra da. Nepal aldera joan nahi nu-ke, eta han trekkingak antola-tu bertaratzen diren euskaldu-nentzat. Hemen nagoen tartean emanaldiak eskain-tzen saiatuko naiz nire bidaie-kin (kontaktua egiteko Insta-gram sare soziala, @aitor_iguinitz kontua).

Toki mordoak bisitatuko ze-nuen; hiru aukeratzeko eska-tuko dizut.

Lehenengo biak garbi ditut: Nepal eta Himalaia mendika-tea, eta Namibia, basamortua gustuko duenarentzat. Hiruga-rrena Ekuador hautatuko dut.

Zergatik animatuko zenuke jendea halako abenturetan murgiltzera?

Gustatzen zaizkigun gauzak egiten saiatu behar dugulako. Izan liteke bidaiatzea, pianoa jotzea edo edozein aktibitate. Funtsean, ametsak betetzen saiatu behar garelako. Zerga-tik? Aukera daukagulako, eta munduko herritar askok ez. Ez dezagun egoera hori alferrik galdu. Aberastasuna ez da diru kopuruan neurtzen, ametsak betetzeko dugun aukeran bai-zik. Eta bidaiatuz asko ikasten delako.



Iguiñitzek azken urteotan
bisitatu dituen txoko
desberdinetako argazki batzuk.
Nepal, Himalaia eta inguruak
bereziki maiteak ditu, baina
Namibiako basamortua edo
behean ikusten den Fitz Roy ere
leku kuttunen atalean ditu.
Aitor IGUIÑITZ



ireki gure leihoa



GAUR8

Egongo gara

Oihane Larretxea
de la Granja

Tarteka idazten dizut mezu bat, tarteka idazten didazu zuk beste bat. Batzuetan mezuek egunetara jasotzen dute erantzuna; beste batzuetan momentuan bertan helitzen da. Egiari zor, gutxitan suertatzen da hori, ez bada justu sakelakoa eskue-tan duzulako eta tartetxo bat duzulako kasu egiteko. Oso okupatuta zaude ume-ekin, lanarekin, etxearekin. Ni ere hala-xe nabil. Presaren zurrumbiloan errit-moak irentsita.

Lagunak gara. Lagun onak, baina as-paldi ez dugula konfidentziarik parteka-tzen, are gutxiago parrandarik. Orduan bai aitortzen genizkiola elkarri beste zir-kunstantzietan esaten ez zirenak. Ezin

zirenak. Ordu txikiek, alkoholaz bustita, asko dutelako intimitatetik.

‘Bip’ egin du nire telefonoak. Zure me-zu bat heldu zait. Burokrazia hutsa den «zer moduz?» batekin hasi zara. Kontu baten bueltan zalantza bat argitu nahian zaude, azkar. Unean bertan eran-tzun ahal izan dizut. «Ondo» batekin abiatu dut elkarrizketa. Automatismo hutsa hori ere. Erantzun errazena da azalpen guztietatik libratzen gaituelako. Eta orain, pentsatzen duzu, ez da luza-tzeko momentua.

«Egongo gara» batekin eman duzu amaitutzat elkarrizketa laburra. «Hitz egingo dugu!», esan dizut nik. Musu bat bidali dizut emotikono bidez. Ahotik

bihotz txiki batek ihes egiten dio. Hauxe gure garai modernootan ezarrita dagoe-na, kasik asumituta duguna. Zapore txa-rra utzi dit.

Akaso heldu da unea aldaketarako. 5G-aren abiaduran doazen bizio txikiak moldatu, lehengora itzuli. Zenbat pro-mesa lerro bakan batzuetan. Zeren bai zuk eta bai nik jakin badakigu, lagun onak izan arren, hitz egiteko modu bat besterik ez dela «egongo garela» hitze-matea. Akaso egon ohi garelako besteak gure partez noiz proposatuko zain. Den-bora pasa izan ez balitz bezala egongo gara elkartzen garen egunean, baina ja-kin badakigu denbora gehiegi pasatu dela. Pasatzen utzi dugula. •

Kontatzen ez dena ez da

Koldo Sagasti

Aforismo herrikoi batek dio gerra batean egia dela lehenengo bik-timetariko bat. Gauza jakina da gatazka armatu batean propa-ganda hobekien darabilena izan ohi dela garaitzeko aukera handiena duena eta, era berean, garailearen kontakizuna izan ohi dela nagusitzen dena. Kontaketarako baliabideak kontrolatzen dituenak, bate-koak zein bestekoak, bere interesen neu-rkira manipulatzeko du errelatoa. Baina gatazkaren kontakizunaren manipulazio hori, hainbatetan, aktiboa izan barik, kontatzen ez diren ñabarduretan datza.

Afganistango inbasioan, gerora Irake-koan gertatuko zen bezala, CNN telebis-ta kateak bere egin zuen AEBetako De-

fentsa Departamentuak ezarritako esti-lo irizpide bat: hildakoen gorpuen iru-diak erakustea bazegoen, baina inola ere ez armada estatubatuarraren erasoek eragindako hildakoenak. Halaxe konta-tzen zuen Jugoslavian berriemaile ibili-tako kazetari beterano batek: Europako prentsako lankideak kexatzen zirela be-ren hedabideetako zuzendaritzek espre-suki debekatzen zitelako NATOko era-soek eragindako hilotzen irudiak argitaratzea.

Gerra bateko ikusle pasiboak izanik, iritsi gara normaltasunez onartzera ga-tazkako parte interesatu baten kontaki-zuna baino ez dugula jasotzen, eta gure iritzia manipulaturik dagoela, ez hain-

beste kontatzen digutenagatik, baizik eta kontatzen ez digutenagatik. Eta isil-tasun itun horren barruan bertsio hege-monikotik aldentzen diren ahotsak de-serosoak dira. Deserosoak eta mehatxagarriak. Horregatik, akaso, iritsi gara normaltasunez onartzera euskal kazetari bat, Pablo Gonzalez, Ukrainako gerrako informazioa eman nahi izatea-gatik Poloniako kartzela batean egotea. Otsailaren 28tik dago gatibu gatazkaren bestelako egia bat kontatzen ahalegin-tzeagatik eta eskandaluzkoa beharko lu-keen bahiketa ezerezean geratu da biga-rren mailako albisteen txokoan baztertuta. Berriemailea isilarazita, egiaren zati bat da biktima. •

ESKOLAZ KANPOKOAK

Eskolatik kanpoko jarduerak, trebetasunak garatzeko eta pozik egoteko espazioak

 JENDARTEA / GAUR8

Sei eta hamasei urte bitarteko haur eta gaztetxoek %90ek baino gehiagok eskolaz kanpo jardueraren bat egiten dute. Trebetasunak fintzeko eta lagunarteak aberasteko erreminta bikaina dira, betiere haurrak aukeratutako eta pozik sentitzeko espazioak direnean. Neurria ere garrantzitsua da, haurrari aspertzen ere utzi behar baitaio.

Derrigorrezko hezkuntzan ari diren 6-16 urte bitarteko ikasleek %90ek baino gehiagok eskolaz kanpoko jardueraren bat egiten dute, horietatik erdiak baino gehiagok asteen bitan edo gehiagotan. Jarduera horien bidez beren lan etorkizuna hobetu dezakete, eskolaz kanpoko ekintza horiek zeregin garrantzitsua baitaukate haurren garapenean.

Adituen esanean, interesak eta potentzialtasunak aurkitzen laguntzen diete, eta, aldi berean, haien autonomia, autoestimua eta gaitasunen garapena bultzatzen dute. «Haurren prestakuntza eta garapena osatu eta bultzatzeko, eta, horrez gain, pertsona bakarrak eta prestakuntza profil berezia dutenak prestatzen lagun dezakete, etorkizunean gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko», nabarmendu du Sylvie Perez UOCeko Psikologia eta Hezkuntza Zientzien ikasketetako irakasleak. Bere ustez, egiten diren eskolaz kanpoko jar-

duerak haurren gustukoak direnean, esperientzia positiboak sortzen dizkiete eta autoestimua sortzen laguntzen dute. «Horrek garapen sozioafektibo on bat ahalbidetzen du, ezinbestekoa bere etorkizun sozial eta laboralerako. Gainera, ingurune sozializatzaile berriak dira, eta, zentzu horretan, ezinbestekoak dira emozioak identifikatzen eta kudeatzen ikasteko, beste erreferente heldu batzuekin prestatzeko, ikastetxeko eta institutuko lagunak ez diren beste batzuk egiteko... Hala-ber, araututako hezkuntza sisteman sakonki landu ez daitezkeen ezagutzak eta gaitasunak ematen dizkiete».

Hala ere, eskolaz kanpoko jarduerak onuren zerrenda hori guztia eman ahal izateko, adituen ustez funtsezkoa da kontuan hartzea ez dela derrigortutako denbora. Beraz, haurrek gustuko izan ditzaketen trebetasunak garatzeko edo eroso, onartuta eta pozik sentitzeko moduko giroak aurkitzeko gunea izan beharko lukete.

«Eskola errefortzu soilak diren jardueretatik urrundu be-



harko ginateke. Haur bati arlo jakin bat gustatzen ez bazaio, zerk pentsarazten digu eskolaz kanpo arlo hori bera gustatuko zaiola? Ikasleek ordu asko ematen dituzte eskolan; eskolaz kanpoko orduak izan beharko lirateke haientzat gustukoenak eta gozagarrienak. Hori bai, argi izan behar da eskolaz kanpoko jarduera bat ezin dela irizpiderik eta zorroztasunik gabeko zerbait bihurtu», azaldu du Jordi Peralesek, UOCeko Ikaskuntza-ren Zailtasunen eta Hizkuntzaren Nahasteen unibertsitate masterreko tutoreak. Gaineratu duenez, kontua ez da soilik eskolak eskaini ezin duena «konpentsatzea», baizik eta haurrak bere denbora bere gustuko jardueretan eman ahal izatea.

Eskolaz kanpoko aukeratzeko denbora behar da eta gurasoek eta seme-alabek



Kirola eta musika eskolaz kanpoko jardueren artean aukera onak izan daitezke, betiere haurraren gustuak kontuan hartuta.
GAUR8

partekatutako erabakia izan behar du. Horregatik, komeni da gurasoek beren seme-alabei begiratzea zer interes dituzten ikusteko. Hala ere, zer behar duten ere kontuan hartu behar da, baina ez eskolan edo institutuan ikasi behar dutena ordezkatzeko.

INDARTZEKO, HOBETZEKO

«Eskolako ikaskuntzak eskolan eman behar dira. Baina, adibidez, gerta daiteke nola-baiteko ‘baldarkeria’ motorra antzematea gure seme-alabengan, eta gorputz mugimendua dakarren kirol edo jarduera fisiko bat ondo joan dakiekeela pentsatzea. Edo musikarako edo beste jardueratik artistikoa baterako erraztasuna dutela ikus dezakegu, eta horrek asetasa eragiten diela; beraz, hori lantzen lagun diezakegu», azaldu du Sylvie Perezek.

«Haur bati arlo jakin bat gustatzen ez bazaio, zerk pentsarazten digu eskolaz kanpo arlo hori bera gustatuko zaiola? Eskolaz kanpoko orduak izan beharko lirateke gustukoenak»

Egokiena da haurren «agenda» gehiegi ez betetzea. «Haurrari atsedean hartzen, jolasten eta noizean behin aspertzen utzi behar zaio», nabarmentzen dute adituek

Adituaren ustez, ingelesa, frantsesa edo beste edozein hizkuntza ikastea aukera ona izan daiteke, betiere haurrak jarduera hori gustuko badu eta eskolan dagoeneko egiten dituen zeregin eta ikaskuntzei zailtasun erantsirik ez badakarkie. Aukera onak dira, halaber, musika, dantza eta jarduerak artistikoak (pintura edo eskulanak, esaterako), baita edozein kirol ere, eboluzio adinaren arabera.

Behin eskolaz kanpoko jarduera seme-alabekin batera aukeratuta, adituek gutxienez bi hiruhilekotan mantentzea gomendatzen dute, konpromisoaren balioa erakusteko eta giro berriei aukera bat emateko. «Malguk ere izan behar dugu eta jarduerak hauek probatzeko izan daitezkeen ahalbidetu; haurrek zer gustatzen zaien eta ondo zertan moldatzen diren ikusteko».

Astero jarduerak horietan eman beharreko denborari dagokionez, egokiena da haurren “agenda” gehiegi ez betetzea arratsalde guztietan eskolaz kanpoko jarduerak eginez. «Haurrari atsedean hartzen, jolasten eta noizean behin aspertzen utzi behar zaio», esan du Peralesek.

Eskolaz kanpoko jardueren atzean bada beste errealitate bat. «Familia batzuek seme-alabei eskolaz kanpoko jardueretan izena ematea beste erremediorik ez dute, norbait haiez arduratu ahal izateko. Baina kasu horietan jarduerak horien izaera hezigarriaren zati bat galtzen da, eta umezain hutsak izaten dira. Haurrak ahalik eta denbora gehien egon behar du familiarekin, baina egia da askotan familia eta lana bateratzeko arazoak izaten direla», esan du Peralesek.



Garazi Goia - @GaraziGoia
Idazlea

Indiferentziatik

Londresen daramatzadan ia hogeitaz urteetan egon diren hainbat gertaera historikoren artean, Elizabeth II.a Erresuma Batuko erreginaren heriotza nire hilabeteroko zutabea idatzi behar nuen aste berean tokatzean, entzungor egin eta beste zerbaitetaz idaztea ez zitzaidan aproposa iruditzen. Bestalde, monarkiaren nire indiferentziatik zutabe kritiko bat idaztea azaleko lana litzateke; are gehiago, batzuek esaten zidaten moduan errespetu falta ukitukoa eta friboloa ere bai, lanketa koherenteago bat egiteko prest ez banengoen behintzat.

Gertutik jarraitzen ditudan kazetari batzuen iritziz zutabeak irakurri nituen; kasualitatez denak liberalak, monarkiaren kontrakoak eta ideologia ezkertiar aurrerakoiagoen bultzatzaileak; eta noski denak irizpide sakon, informatu eta intelektualekin hornituta.

Marina Hyde kazetariak "The Guardian"-en egiten zuen analisiak atentzioa eman zidan: erreginaren heriotzari buruzko sei mila karaktereko zutabearen, erregina bigarren plano batera eraman eta emozioek hartzen zuten protagonismoa.

Erresuma Batuak, lurralde bezala, eta britainiarrek biztanle bezala, emozioekin duten distantzia azpimarratzekoa da; emozioak ahulezia erreakzio bat direla ematen du, porrota eta etsipena adieraziz. Hoztasuna, metodikotasuna eta politikoki zuzena den hori dira arrazionaltasun britaniarrarekin bat datozenak. Eta, horregatik, Hydek zioen moduan, hemengo politikariak eta erakunde publikoak jendearen emozioen beldur direla dirudi askotan.

Kaos politikoaren erdian, brexitarren ziurgabetasunean, ekonomia hauskorren presiopean eta seriotasuna eta sinesgarritasuna galdu duen gobernu baten gidaritzapean, eszeptikotasunaren erreakzio antzuak bazirudien lurpean zituela emo-

zioak, baina erreginaren heriotzak sortu duen une honen eragina iragartzea oso zaila da.

Dianaren heriotzaren ostean doluak elkartu zituen britainiarrak; eta erreginaren erreakzio hotzaren aurrean, prentsa sentsazionalistak bidea ireki zion herritarren ahotsari, «erakutsi zure emozioak» eskaerak lehen orrialdeak hartuz. Doluan egindako masa mugimendu hura, histeria eta haserre hark urduritasuna sortu zuen. Boris Johnsonek bere erretorika baldarrean «dolu kutsakorra» deitu zion, defentsa mekanismo ahul bat bezala. Haydek aipatzen zuen Barbara Ehrenreichek idatzitako poztasun kolektiboari buruzko tesia: masa mugimenduetan egindako ospakizunek –erritual paganoak, rock kontzertuak– askatasuna ematen digute. Parte hartzaileek sentitzen duten estasi egoera hori terapeutikoa izateraino. Boterean dauden horiek, ordea, ez dute ontzat hartzen erregularik gabeko espontaneotasun hori, esfera arrazionaletik at dagoen hori guztia.


Nahiz eta dolua denek ez duten modu berdinean partekatzen, emozioak eta bihotzetik datozen erreakzioak piztu ditu erreginaren heriotzak eta horien eragina ezin da gutxietsi. Adi jarraituko dut... •



Erresuma Batuko erreginaren heriotzak emozio asko piztu ditu herritarren artean. OII SCARFF | AFP

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



Camille FREDERIC DE BUZON | CLARA GARMENDIA FUNTSA

CAMILLE DE BUZONEN ARGAZKIAK EUSKAL ARRANTZALEEI

Camille Frederic de Buzon, euskal jatorriko argazkilari eta margolaria, 1885eko urtarrilaren 18an jaio zen Bordelen. Bordeleko Arte Ederretako Eskolan eta Parisekoan ikasi zuen, bere anaia Marius de Buzonek egin bezala. Parisera itzuli zenean, 1905ean, beka bat irabazi eta Madrilera joan zen ikasten jarraitzera. Bordelera itzulita, Getariatik igaro zen, eta bertan bizi izan zen denboraldi batez. Mady bere emaztearen arabera, herrialdearen edertasunak eta bertako biztanleen (euskaldunen) nobleziak liluratu zuten. 1924 eta 1929 artean, Camille Aljeriara joan zen, Kabiliara, bere anaia han bizi baitzen, pintorea hura ere. 1930etik Bordelen hil zen arte, uda guztietan Getariara joaten zen, eta arrantzaleak margotzen zituen batez ere. Mutrikun, Ondarroan eta Lekeition ere bizi izan zen denboraldika. Camillek bostehun irudi inguru utzi zituen 10x15eko kristalezko plaken, 6x9ko azetatoen eta positiboen artean. Gehienak Euskal Herrikoak dira, nahiz

eta Kabilia inguruko pertsonaiak biltzen dituen album bat ere badagoen. Bere artxiboko argazkiak eta bere koadroak ikusita, nabarmena da Camillek lortzen zituen irudi gehienak zirriborro gisa erabiltzen zituela, edo, behintzat, ondoren margotzen zituen koadro-etarako erreferentzia gisa. Utzi digun argazki lana dokumentu interesgarria da batez ere Euskal Herriko arrantzaleen bizitza ezagutzeko. Artistak Bidarra inguruan egindako argazki batzuk ere badaude, lagun batzuk baitzituen han. Aljerko Arte Ederren Museoan 1925ean artista honek margotutako margolan bat dago: "Getariako Portua". 1937an Bordeleko Lan Burtsan merkataritzari buruz egindako murala ere nabarmentzekoa da. Goiko argazkia joan den mendeko 30eko hamarkadan egina dago eta Baltasar Garmendia arrantzalea ageri da erretratuan. Haren alaba, Clara, egun argazki artxibo honen gordailuzaina da, eta haren zaharberritzeaz eta egoera onean zaintzeaz arduratu da.

GAUR8

ireki gure leihoa

